

**Fiskalizazio Txostena**

**Informe de Fiscalización**

**Fundación AIC Automotive  
Intelligence Center Fundazioa**

**2011**





## AURKIBIDEA/ÍNDICE

LABURDURAK .....	5
I. SARRERA .....	7
II. IRITZIA .....	9
II.1 Legea betetzeari buruzko iritzia.....	9
II.2 Urteko kontuei buruzko iritzia.....	10
III. BARNE KONTROLERAKO SISTEMEI ETA KUDEAKETA PROZEDUREI BURUZKO IRIZPENAK .....	11
IV. MAGNITUDE ESANGURATSUEN BARIAZIOEN ANALISIAK .....	14
V. URTEKO KONTUAK.....	17
VI. FUNDAZIOAREN ERAIKUNTZA ETA EKIPAMENDU PROZESUA LEGEZKO DEN AZTERTZEA .....	19
VI.1 Legea betetzeari buruzko iritzia.....	19
VI.2 Bestelako hutsak eta gomendioak.....	20
ALEGAZIOAK .....	21
ABREVIATURAS.....	65
I. INTRODUCCIÓN .....	67
II. OPINIÓN .....	69
II.1 Opinión sobre el cumplimiento de la legalidad .....	69
II.2 Opinión sobre las Cuentas Anuales .....	70
III. CONSIDERACIONES SOBRE LOS SISTEMAS DE CONTROL INTERNO Y PROCEDIMIENTOS DE GESTIÓN .....	72
IV. ANÁLISIS DE LAS VARIACIONES DE MAGNITUDES SIGNIFICATIVAS .....	75
V. CUENTAS ANUALES.....	78
VI. ANÁLISIS DE LA LEGALIDAD DEL PROCESO DE CONSTRUCCIÓN Y EQUIPAMIENTO DE LA FUNDACIÓN .....	80
VI.1 Opinión sobre el cumplimiento de la legalidad .....	80
VI.2 Otras deficiencias y recomendaciones.....	81



ANEXOS.....	83
A.1 Naturaleza y legislación aplicable .....	83
A.2 Antecedentes .....	84
A.3 Inmovilizado material e inversiones inmobiliarias.....	88
A.4 Otras inversiones .....	90
A.5 Activo corriente .....	91
A.6 Fondos propios .....	91
A.7 Subvenciones, donaciones y legados.....	92
A.8 Pasivo no corriente y corriente .....	95
A.9 Gastos de personal .....	95
A.10 Aprovisionamientos y otros gastos de explotación .....	96
A.11 Ventas y otros ingresos de la actividad mercantil .....	97
A.12 Liquidación del presupuesto .....	99
A.13 Contratación .....	100
ALEGACIONES .....	103

Vitoria-Gasteiz, 2013ko abenduaren 20a

Vitoria-Gasteiz, a 20 de diciembre de 2013



Herri -Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

## LABURDURAK

ACICAE	Euskadiko Automozio Clusterraren Elkartea
EAE	Euskal Autonomia Erkidegoa
XG	Xedapen Gehigarria
BFA	Bizkaiko Foru Aldundia
DOUE	Europar Batasuneko Aldizkari Ofiziala
KBA	Kontrataziorako Barneko Aginpideak
SPKL	30/2007 Legea, urriaren 30ekoa, Sektore Publikoaren Kontratuei buruzkoa.
SA	Sozietate anonimoa
PBSA	Pertsona Bakarreko Sozietate Anonimoa
SM	Sozietate Mugatua
APKLTB	2/2000 Legegintzazko Errege Dekretua, ekainaren 16koa, Administrazio Publikoetako Kontratuei buruzko Legearen Testu Bateratua onesten duena.
HKEE	Herri-Kontuen Euskal Epaitegia





## I. SARRERA

Herri-Kontuen Euskal Epaitegiak otsailaren 5eko 1/1988 Legeak agindutakoari eta bertako lan programari jarraiki, AIC Automotive Intelligence Center Fundazioaren (aurrerantzean Fundazioa) fiskalizazio lana mamitu du, 2011ko ekitaldiari dagokiona.

2006ko urriaren 6an eratu zen Fundazioa eta Fundazioen Erregistroan jaso zen 2007ko maiatzaren 28an. Helburua da automozio sektorearentzat balioa sortzeko gunea eratzea, sektorearen ezagutza garatzeko xedearekin goi mailako kualifikazioa duten pertsonen koordinazioa oinarri hartuta; baita, ikerketa zientifiko eta teknologikodun jarduerak garatzea ere, era guztietako enpresa erakundeekin nagusiki eta zuzenean proiektuak gauzatzuz, hartara automozioaren sektoreko industrian lehiakortasuna eta berrikuntza zuzenean areagotu dadin.

Fundazioak jarduera Zornotzan, bertan du sozietatearen egoitza, eta Ermuan garatzen du.

2011ko abenduaren 31n Patronatua honako kide hauek osatzen zuten:

- Bizkaiko Foru Aldundiak: hiru kiderekin, horietako bat diputatu nagusia
- Zornotzako Udalaren alkateak
- Ermuko Udalaren alkateak.
- Microdeco SAK
- Autokomp Ingeniería SAK (CIE Automotive Taldea).
- G.A.T.ek STAFF SLk (Amaya Telleria Taldea).
- Pierburg SAK
- ZF Lemförder TVA SAK
- Euskadiko Automozio Clusterraren Elkarteak (ACICAE)

Fiskalizazioak honako alderdi hauek besarkatzen ditu:

- Legezkoak: Ezargarria zaion arautegia bete izana langileen, obren kontratazioaren, ondasun eta zerbitzuen eta diru-laguntzaren alorrean.
- Kontularitzakoak: Fundazioaren 2011ko Urteko Kontuak ezargarri zaizkion kontularitzako printzipioekin bat datozela egiaztatzea.
- Lanaren zabalak ez du gastuaren eraginkortasun eta zuhertasunari buruzko azterlanik besarkatzen. Nolanahi ere, azaleratu diren hutsak "III. Barne kontrolerako sistemari eta kudeaketa prozedurei buruzko irizpenak" idazpuruan zehaztu ditugu, horiek hobetzeko gomendioekin batera.
- Fundazioaren magnitude ekonomiko nagusien eta jardueraren bilakaeraren azterketa, azken lau urteetako.

Esandakoaz gain, aparteko atala jaso dugu Fundazioaren eraikuntza prozesuak eta ekipamenduak legea betetzeari dagokionez.



Fundazioaren kontuak 2007ko ekitaldiaz geroztik auditatu dira. 2011ko txostenen euskarri izan diren lan paperak aztertu eta beharrezko iritzitako froga osagarriak egin ditugu.

2011ko abenduaren 31n amaitutako ekitaldiari dagozkion Urteko Kontuak Patronatuak onartu zituen, 2012ko ekainaren 12an egindako bileran eta 2012ko uztailaren 30ean Fundazioen Erregistroan gordailatuak.





## II. IRITZIA

### II.1 LEGEA BETETZEARI BURUZKO IRITZIA

#### Kontratazioa (IKUS A.13)

1. Prozedura negoziatu bidez 507.602 euroan esleitu zen zerbitzu espediente batean, nabarmen aldatu dira hasiera batean prozedura murriztu bidez izapidetu zen espedientearen hasierako baldintzak, hutsik geratu zena; horrek SPKLren 154.c) artikulua urratzen du.
2. Aholkularitza teknikoa emateko zerbitzuaren kontratazioa (10 zk. espedientea) 2009an gauzatu zen 96.000 euroren zenbatekoan eta 2009-2011 aldian 133.667 euroren egikaritza izan zuen; ordea, ez da dagokion kontratazio espedientea bideratu KBAen 10.3.b) klausulari jarraiki, ezta luzapen kopuru gehiengoa finkatu ere, KABen 10.5 klausula urratuz.
3. 6,1 milioi euroan esleitu zen espediente batean ez da agiri bidez erasota utzi balio judizioen bidez neurgarriak ziren irizpideen balorazioa formula bidez kuantifikagarriak ziren haiek baino lehenago egin zenik eta horrek SPKLren 134.2 artikulua urratzen du (5. espedientea).
4. Mantentze zerbitzuen kontratuan (9. espedientea) bi urtetarako esleitu zen 507.603 euroan (2009-2011); ordea, 2011n zerbitzua ematen jarraitzen da dagokion kontratazio espedientea bideratu gabe.
5. Aldaketa modura izapidetu da hainbat obraren exekuzioa, 236.695 euroren zenbatekoan, behin obra nagusia kitatu eta jaso ondoren (5. espedientea). Zerbitzu hori kontratazioan buru egiten duten printzipio orokorren arabera izapidetu behar zatekeen.

#### Diru-sarrerak (ikus A.11)

6. Sarrereren kontuak aztertzean ondoko egoera hauek azalera zuazkigu:
  - Zerbitzua eman eta espazioak erabiltzeagatik prezioak (laborategiak, garapen unitateak...) ez ditu Fundazioaren inongo atalek onartu (ez Patronatuak, ez Batzorde Eragileak ere).
  - Ezarritako prezioen taulak ez du zerbitzu guztientzako tarifa ezartzen eta zehaztuak dauden haietan ez digute xehapena justifikatu. Aurreikusi gabeko prezioak kasu bakoitzean modu askean zehazten dira.
  - Kontratuetan espazioen alokairu kontzeptuan zehaztutako prezioak bat-bateko izaerarekin murriztu egiten dira pizgarrien bidez, Fundazioaren inongo atalek onartu ez dituztenak (ez Patronatuak, ez Batzorde Eragileak ere). Aztertu diren bost kontratuetan Fundazioak ezarritako deskontuak 665.801 euro egin ditu 2009-2011 aldian.



## Beste batzuk

- 2011ko ekitaldian AIC Scope SL eta AIC Start SL sozietateen sorrera Batzorde Eragileak onartu du eta ez Fundazioaren Patronatuak; horrek Fundazioen Legearen 17.1 artikulua urratzen du, zeinak agintzen duen inola ere ez direla eskuordetuko ohiko kudeaketaz haratagokoak diren ekintzak (ikus A.4).

Epaitegi honen iritzira, Automotive Intelligence Center Fundazioak, 1etik 7ra bitarteko paragrafoetan aipatutako ez-betetzeak alde batera, zuzentasunez bete du 2011ko ekitaldian ekonomia-finantzaren jarduera arautzen duen lege arautegia.

## II.2 URTEKO KONTUEI BURUZKO IRITZIA

- Zornotzako lursailen erabilera eskubideak 6,1 milioi euroren zenbatekoa egiten zuten; eskubide horiek balioztatzen dituen dokumentazio euskarria ez da egokia erregistraturiko zenbatekoa zehazteko. Bestetara, Ermuko lursailen erabilera eskubideak 3,6 milioi euroan balioztatu ziren, 2007ko urtean lursaila erosi zen unean merkatuan zuen balioaren arabera. Alabaina, merkatu balio hori ez zen eguneratu lagapena egin zen datan, 2011ko otsailaren 22an (ikus A.3).
- Zornotzako Udalak lagatako lursailen eraikitako eraikinak ez dira Fundazioaren jabetzakoak, jabetza erregistroan jaso dagoen erregistroaren arabera, zeinetan Udala ageri den horien jabe. Informazio hau ez da horrela jaso Fundazioaren urteko kontuen oroitidazkian, non eraikin horiek bere jabetzakoak direla esaten den. Fundazioa desagertuko balitz, bertako azpiegiturak Udalaren esku geratuko lirateke.

Epaitegi honen iritzira, aurreko 1. eta 2. paragrafoetan aipatutako salbuespenak alde batera, AIC Automotive Intelligence Center Fundazioaren 2011ko ekitaldiaren Urteko Kontuek alderdi esanguratsu guztietan 2011ko abenduaren 31n ondarearen eta finantza egoeraren isla zuzena erakusten dute; baita, data horretan amaitutako urteko ekitaldiari dagozkion bere eragiketen eta eskudiruzko fluxuen emaitzena ere, ezargarria den finantza informazioaren arau-esparruaren arabera eta, zehazki, bertan jasotako kontularitzako printzipio eta irizpideen arabera.

Urteko kontuen gaineko iritzian eraginik izan gabe, komenigarri irizten diogu kontuan hartzeari, egoki interpretatzeko, Zornotzako Udalak lagatako lursailak Lurzoruaren Udala Ondarearen atal direla eta honenbestez, egindako lagapena ez zaiola ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 111, 112 eta 115 artikuluetan, Euskal Herriko Lurzoru eta Hirigintzari buruzkoa, ezarritakoari egokitzen, udal ondarea osatzen duten ondasun eta eskubideen norakoa arautzen dutenak; honenbestez, lagapena kostu bidez egin behar zatekeen eta lehiaketa publiko edo truke bidez. Egitate honek Fundazioa zalantza egoeran jartzen du sozietatearen goitza hartzen duten lursailen erabilera eskubidea galtzeko balizko egoeraren aurrean.



### III. BARNE KONTROLERAKO SISTEMEI ETA KUDEAKETA PROZEDUREI BURUZKO IRIZPENAK

Atal honetan ekonomia-finantza jarduera arautzen duten printzipioak gehiegi eragiten ez dituzten akatsak ez ezik, kudeaketa hobetzeko azpimarratu nahi diren prozedurazko alderdiak ere azaleratu dira.

#### Fundazio den aldetik bete beharreko obligazio formalak

1. Ondotik zehaztutako egintzak ez dira Fundazioen Erregistroan jaso:
  - Batzorde Eragilea sortu eta honi Patronatuaren erabakiak hartzeko eskumen oro eskuordetzea, indarreko legeriaren arabera eskuordetu ezinezko direnak eta Fundazioaren gidalerro diren haiei dagozkienak salbuetsita.
  - 2010eko abenduaren 9tik aurrera patroien izendapena urtebete luzatzea.
2. Ahalordeen emakida Fundazioen Erregistroan lau urteko atzerapenez erregistratu zen.
3. Ez zaio Babesletzari eman Fundazioak Ermuan dituen instalakuntzen berri.
4. Ondotik adierazitako kasuetan Babesletzari ez zaizkio patroiek egindako autokontratazioak jakinarazi (Fundazioen Legearen 14. artikulua, EAEren Industriari buruzko 8/2004 Legearen Xedapen Gehigarri hirugarrenak araututakoaren arabera) (ikus A.10 eta A.11):
  - Fundazioak ACICAErekin zerbitzuak alokatzeko kontratua, 2006ko urriaren 6tik 2011ko abenduaren 31ra bitartean 3,2 milioi euroren egikaritza izan duena.
  - Fundazioak bere patroiangandik eskuratutako diru-sarrerak aretoen alokairu eta zerbitzuen emakida kontzeptuan, 2011n 973.716 euroren zenbatekoan.
5. Ez zaio Babesletzari jakinarazi 2011ko urte amaieran bi sozietate mugaturen sorrera, AIC Start SL eta AIC Scope SL.

#### Aurrekontua eta kontabilitatea

6. 2011ko ekitaldiari dagokion gastu eta sarreren aurrekontuak ez du oroitidazki azaltzailea besarkatzen eta horrek Fundazioen Legearen 26.2 artikulua agindutakoa urratzen du. Bestetik, Fundazioak aurkeztutako aurrekontu-likidazioa ez zaio apirilaren 30eko 776/1998 Errege Dekretuak onesten duen ereduari egokitzen, zeinak Kontabilitate Plan Orokorra irabazi asmorik gabeko erakundeei egokitzeko arauak eta horien aurrekontu informazioko arauak onesten dituen (ikus A.12).
7. Galera-irabazien kontuak ez du II. fasea finantzatzeko eskatutako mailegutik eratorritako finantza gastuei dagokien zenbatekoa barne hartzen, 663.570 euroren zenbatekoan, ez eta gastu hau finantzatzen duten diru-laguntzen atala ere. Egoera hau 2010eko ekitaldian ere gertatu zen 732.535 euroren zenbatekoarekin. Erregistro eza honek ez du eraginik bi ekitaldien emaitzetan.



### Kontratazioa (IKUS A.13)

8. Fundazioaren KBAek erregulazio harmonizatuari lotzen ez zaizkion kontratuen esleipenean ez dute lehia sustatzea aurreikusten 50.000 euro baino gutxiagoko kontratuetan, ez eta 200.000 euro baino gutxiagoko obra kontratuen publizitatean, ez eta 60.000 euro baino kopuru txikiagoko gainerakoetan ere; horrek SPKLren 175 a) eta c) artikulua urratzen du. Fundazioaren KBAak ez dira kontratugilearen profilean argitaratu, SPKLren 175. artikulua agintzen duenaren aurka. Gainera, kontratugilearen profila euskarritzen duen informatika sistemak ez du informazioaren hedapen publikoa zein unetan hasten den modu frogagarrian egiaztatzen utziko duen gailurik eta abian den ekitaldiari buruzko informazioa soilik bistaratzen du, kontsulten historikorik izan gabe.
9. Aztertu diren kontratuetatik 2ren esleipen irizpideak, 6,4 milioi euroan esleitutakoak, enpresen kaudimenarekin loturiko alderdiak balioztatzen dituzte (giza eta gauzazko baliabideak, kalitatea ziurtatzeko plana eta prestakuntzaren antolamendua eta plana), SPKLren 53.2, 131.2 eta 134 artikuluetan ezarritakoaren aurka. Horrezaz gain, prezio eta epe irizpideak ez dira proportzionalak (5 eta 27. espedienteak).
10. 350.000 euroan esleitutako espediente batean ez da justifikatzen esleipen hartzailea zerga eta gizarte segurantzako obligazioetan eguneratuta zegoenik, SPKLren 135.4 artikulua agintzen duena urratuz (27. espedienteak).
11. 350.000 euroren zenbatekoan esleitutako espediente batean ez dago esleipendunak behin-betiko bermea aurkeztu duela egiaztatuko duen agiririk. Bermea eratzea SPKLren 83. artikulua arautzen du (27. espedienteak).
12. Fundazioak kontratazio mahaiak eta balorazio atalak eratzea aukerakoa da. Alabaina, erregulazio harmonizatuari lotutako kontratuetan balorazio organo bat osatzea gomendatzen da, aurkeztutako dokumentazioa kalifikatu, eskaintzak baloratu eta kontratazio atalari esleipen proposamen bat aurkezteko ardura hartuko duena; horren osaera, ahal den heinean eta beharrezko gerta daitezten egokitzapenekin, SPKLren 295.3 artikulua xedatzen duenaren arabera izango da.

### Beste batzuk

13. ACICAErekin zerbitzuak alokatzeko kontratua aztertzean ez zaigu hasierako kontratuaren zenbatekoa zehazten duen dokumentazio euskarria eskuratu, ez eta horren luzapenarena, ez bertan jasotzen diren zerbitzuen kostuaren xehapena ere. ACICAEk hileroko egin ohi duen fakturazioan ere ez dira emandako zerbitzuak eta horien kostuak xehatzen. Kontratu honen bidez guztira fakturatutako zenbatekoa horren indarraldian zehar eta 2011ko abenduaren 31ra arte, 3,2 milioi euroa izan da (ikus A.10).



Herri -Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

Berebat, Fundazioak kontratatu eta ordaindutako beste gastu batzuk erregistratu dira, ACICAErekin izenpetutako kudeaketa-mandatuko kontratuaren xedean barne hartuak daudela jo daitezkeenak eta honenbestez, azken honek bere gain hartu behar zituzkeenak. Hona hemen xehapena:

	Euroak milakotan
KONTZEPTUA	ZENBATEKOA
Aholkularitza teknikoa (2007-2011) .....	195
Inteligentzia zerbitzuak (2010 eta 2011).....	75
Plan estrategikoa (2007 eta 2008).....	95
Kontabilitate-aholkularitza (2007-2011) .....	60
<b>GUZTIRA</b>	<b>425</b>

14. 203.181 euroren zenbatekoa abenduaren 29ko 3/2004 Legea aldarazten duen uztailaren 5eko 15/2010 Legearen bigarren xedapen iragankorrak adierazitako epeen ondoren ordaindu da; lege honek merkataritzako eragiketetan berankortasunaren aurkako neurriak ezartzen ditu. Berandututako ordainketen batez besteko epe haztatua 39 egunekoa izan da.



#### IV. MAGNITUDE ESANGURATSUEN BARIAZIOEN ANALISIAK

Ondoko taulan zehaztu da Fundazioaren balantze eta galera-irabazien kontuko magnitude nagusiek izan duten bilakaera:

FINANTZA ANALISIA	Euroak milakotan				% bariozioa		
	2008(*)	Urtea		2011	Urtea		
		2009(*)	2010(*)		2009	2010	2011
<b>AKTIBO EZ ARRUNTA</b>							
Ibilgetu ukiezina .....	6.124	5	3	38	(99,9)	(40,0)	1.166,7
Ibilgetu materiala.....	34.046	32.347	33.887	30.984	(5,0)	4,8	(8,6)
Ibilgetuko inbertsioak .....	-	25.596	24.867	29.196	-	(2,9)	17,4
Bestelako inbertsioak .....	5	1	4	150	(75,0)	300,0	3.650,0
<b>AKTIBO ARRUNTA</b>							
Merkataritzako zord. eta kobratz. beste kontu batzuk	4.764	32.305	21.487	18.565	578,1	(33,5)	(13,6)
Aldizkakotzeak epe laburrera.....	25	22	32	34	(12,0)	45,5	6,3
Eskudirua eta bestelako aktibo likido baliokideak....	12.136	4.050	7.725	5.905	(66,6)	90,7	(23,6)
<b>AKTIBO GUZTIRA</b>	<b>57.100</b>	<b>94.326</b>	<b>88.005</b>	<b>84.872</b>	<b>65,2</b>	<b>(6,7)</b>	<b>(3,6)</b>
<b>ONDARE GARBIA</b>							
Berezko funtsak .....	695	760	776	846	9,5	2,1	9,0
Jasotako diru-laguntza, dohaintza eta legatuak .....	48.331	72.615	68.351	68.047	50,3	(5,9)	(0,4)
<b>PASIBO EZ ARRUNTA</b>							
Epe luzeko zorrak .....	47	16.417	14.713	12.901	E/E	(10,4)	(12,3)
<b>PASIBO ARRUNTA</b>							
Epe laburreko zorrak.....	7.764	3.796	3.273	2.670	(51,1)	(13,8)	(18,4)
Merkataritz. hartzek. eta ordain. beste kontu batzuk	263	738	892	408	180,6	20,9	(54,3)
<b>ONDARE GARBIA ETA PASIBO GUZTIRA</b>	<b>57.100</b>	<b>94.326</b>	<b>88.005</b>	<b>84.872</b>	<b>65,2</b>	<b>(6,7)</b>	<b>(3,6)</b>
<b>ERAGIKETA JARRAITUAK</b>							
Salmentak eta merkat. jardueraren best. sarrerak....	5	763	1.302	1.975	e/e	70,4	51,7
Hornidurak .....	(601)	(637)	(680)	(518)	6,0	6,8	(23,8)
Bestelako ustiaketa sarrerak.....	-	4	112	65	-	e/e	(42,0)
Langileria-gastuak.....	-	(25)	(32)	(111)	-	28,0	246,9
Bestelako ustiapen gastuak.....	(386)	(1.342)	(1.560)	(1.725)	245,9	16,2	10,6
Ibilgetuaren amortizazioa.....	(2)	(1.889)	(2.542)	(2.923)	e/e	34,6	15,0
Diru-laguntzak jarduerari egoztea .....	984	3.126	3.400	3.237	216,9	8,8	(4,8)
<b>USTIAKETAREN EMAITZA .....</b>	<b>-</b>	<b>-</b>	<b>-</b>	<b>-</b>	<b>-</b>	<b>-</b>	<b>-</b>
Finantza sarrerak .....	430	73	18	78	(83,0)	(75,3)	333,3
<b>EMAITZA FINANTZARIOA .....</b>	<b>430</b>	<b>73</b>	<b>18</b>	<b>78</b>	<b>(83,0)</b>	<b>(75,3)</b>	<b>333,3</b>
Mozkinen gaineko zerga.....	(43)	(8)	(2)	(8)	(83,7)	(71,4)	300,0
<b>EKITALDIAREN EMAITZA .....</b>	<b>387</b>	<b>65</b>	<b>16</b>	<b>70</b>	<b>(83,0)</b>	<b>(75,8)</b>	<b>337,5</b>

(\*) HKEEk fiskalizatu gabeko datuak.

e/e ez da ezargarria



Herri-Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

## 2008-2011 ALDIAN BARIAZIOAK. BALANTZEA ETA GALERA-IRABAZIEN KONTUA

### EGOERAREN BALANTZEA

**Aktibo ez arrunta:** Aztertutako aldiaren bariazioa % 50,28ko igoera izan da, 40,2 milioi eurotik 60,4 milioi eurora aldatuz. Igoera batik bat 2009ko ekitaldian gertatu da, Ibilgetuko inbertsio kontzeptuan egindako inbertsioen ondorioz; inbertsio hauek irabaziak epe luzera eskuratzera emanak daude.

**Aktibo arrunta:** Aztertutako aldiaren bariazioa % 44,78ren igoera izan da, ekitaldi itxiera bakoitzean emandako diru-laguntzen kontzeptuan BFAtik kobratzeko zeuden diru-kopuruen ondorioz. Kopuru esanguratsuen 2009ko ekitaldi itxieran gertatu zen, zeinetan II. faseatik kobratzeko modura 27,4 milioi euroren saldoa jaso zen.

**Ondare garbia:** Aztertutako aldiaren bariazioak % 40,53ko igoera eragin du. Hona hemen bariazio nagusiak:

- Berezko fondoak: % 21,73ren igoera izan dute, ekitaldi bakoitzeko emaitzek eragindakoa, izan ere, hasierako fundazio-zuzkidurak ez du aldaketarik jasan.
- Jasotako diru-laguntza, dohaintza eta legatuak: Saldoak jasotako diru-laguntzen ondorioei egotzeko dagoen atala erakusten du. Aztertutako aldiaren % 40,8ko igoera izan da eta batik bat 2009ko ekitaldian II. faseako emandako diru-laguntzaren eraginez, 27,4 milioi euroena. 2006ko ekitaldian I. fasea egikaritzeko 44,4 milioi euroren diru-laguntza erregistratu zen.

**Pasibo ez arrunta:** Halako igoeraren arrazoiak 2009ko ekitaldian proiektuaren II. fasea finantzatzeko eskatu zen 18 milioi euroren maileguan datza.

**Pasibo arrunta:** Aztertutako aldiaren % 61,66 egin du behera, batik bat ibilgetuko hornitzaileen saldoek behera egin izanaren ondorioz.

### GALERA-IRABAZIEN KONTUA

**Salmentak eta bestelako sarrera arruntak:** Igoera esanguratsua gertatu da batik bat 2010eko ekitaldian 2009koarekiko (% 70,42), izan ere, 2009ko ekitaldian, alokairu kontzeptuan diru-sarrerak sortu ziren lehenengo urtean, adostutako prezioekiko % 50eko deskontudun pizgarriak ezarri ziren. 2010eko ekitaldian zehar diru-sarrerak maizter kopuru handiagoa izatetik eskuratzen dira eta pizgarriak % 25ekoak izan ziren. 2011ko ekitaldiaren bariazioa 2010eko ekitaldiarekiko % 51,69koa izan da.

**Hornidurak eta ustiaketakoko beste gastu batzuk:** Gastua ACICAEk emandako zerbitzuei dagokie eta aztertutako aldiaren % 13,81eko beheraldia izan du. Alabaina, beheraldi hau berdindu egiten da kanpoko zerbitzuetan izandako igoerarekin, aztertutako aldiaren 1,3 milioi euroren igoera izan duena.

**Ustiaketaren emaitza:** Honekin baterako taulan ikus daitekeen moduan, kontzeptu honen izenean saldoa zerokoa da aztertutako aldi guztian zehar, izan ere, ustiaketa defizita finantzatzeko jasotako diru-laguntzen zati bat ondorioetara egotzi da.

**Emaitza finantzarioa:** Magnitude honek aztertutako aldiaren izan duen bilakaera % 81,86ko beheraldia da. Gogoan izan behar da kontzeptu honek finantza sarrerak soilik besarkatzen



dituela eta erregistratu gabe daudela 2009ko ekitaldian eskatutako mailegutik eratorritako finantza gastuak. Horren erregistroak, baina, ez zukeen inongo eraginik izango emaitzetan, gastu horiek jada BFAtik jasotako diru-laguntzen bidez finantzatuak baitaude.

### **BESTELAKO IRIZPENAK**

Gogoan izan behar da aztertutako aldian Fundazioak bere ustiapen gastuen atal bat BFAtik jasotzen dituen diru-laguntzen bidez finantzatzen jarraitzen duela, izan ere, jarduera arruntek eragindako diru-sarrerek ez dituzte gastu guztiak estaltzen, nahiz bilakaerak beheranzko joera erakusten duen.





## V. URTEKO KONTUAK

2010eko ekitaldiaren Urteko Kontuak kanpoko auditoreek auditatu dituzte eta konparazio ondorioetarako aurkezten ditugu, HKEEk ez baititu fiskalizatu.

2011 ETA 2010-EKO EKITALDI ITXIERAN EGOERAREN BALANTZEA	Euroak milakotan	
	2011	2010
<b>AKTIBO EZ ARRUNTA</b>	<b>60.368</b>	<b>58.761</b>
I. Ibilgetu ukiezina.....	38	3
II. Ibilgetu materiala (ikus A.3).....	30.984	33.887
III. Ibilgetuko inbertsioak (ikus A.3).....	29.196	24.867
IV eta V. Bestelako inbertsioak (Ikus A.4).....	150	4
<b>AKTIBO ARRUNTA</b>	<b>24.504</b>	<b>29.244</b>
IV. Merkataritzako zordunak eta kobratzeko beste kontu batzuk (A.5).....	18.565	21.487
VII. Aldizkakotzeak epe laburrera (ikus A.5).....	34	32
VIII. Eskudirua eta bestelako aktibo likido baliokideak (ikus A.5).....	5.905	7.725
<b>AKTIBOA GUZTIRA</b>	<b>84.872</b>	<b>88.005</b>

	Euroak milakotan	
	2011	2010
<b>ONDARE GARBIA</b>	<b>68.893</b>	<b>69.127</b>
BEREZKO FUNTSAK (ikus A.6)	846	776
I. Fundazio-zuzkidura .....	776	760
V. Ekitaldiaren soberakina .....	70	16
JASOTAKO DIRU-LAGUNTZA, DOHAINTZA ETA LEGATUAK (ikus A.7)	68.047	68.351
<b>PASIBO ARRUNTA (ikus A.8)</b>	<b>12.901</b>	<b>14.713</b>
I) Epe luzeko zorrak .....	12.901	14.713
<b>PASIBO ARRUNTA (ikus A.8)</b>	<b>3.078</b>	<b>4.165</b>
III. Epe laburreko zorrak.....	2.670	3.273
V. Merkataritz. hartzek. eta ordain. beste kontu batzuk.....	408	892
<b>ONDARE GARBIA ETA PASIBOA GUZTIRA</b>	<b>84.872</b>	<b>88.005</b>



Herri -Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

2011-12-31 ETA 2010-12-31-N AMAITUTAKO EKITALDIETAKO GALERA-IRABAZIEN KONTUA	Euroak milakotan	
	2011	2010
<b>ERAGIKETA JARRAITUAK</b>		
3. Salmentak eta merkataritzako jardueraren bestelako sarrerak (Ikus A.11) .....	1.975	1.302
6. Hornidurak (Ikus A.10).....	(518)	(680)
7. Bestelako ustiaketa sarrerak.....	69	130
8. Langileria gastuak (ikus A.9) .....	(111)	(32)
9. Bestelako ustiapen gastuak (Ikus A.10) .....	(1.725)	(1.560)
10. Ibilgetuaren amortizazioa (ikus A.3) .....	(2.923)	(2.542)
11. Ibilgetu ez finantzarioko diru-laguntzak egozte (ikus A.7) .....	3.237	3.400
13. Beste emaitza batzuk.....	(4)	(18)
<b>USTIAKETAREN EMAITZA</b>	-	-
14. Finantza sarrerak .....	78	18
<b>EMAITZA FINANTZARIOA</b>	<b>78</b>	<b>18</b>
<b>EMAITZA ZERGA AURRETIK</b>	<b>78</b>	<b>18</b>
19. Mozkinen gaineko zerga .....	(8)	(2)
<b>EKITALDIAREN EMAITZA</b>	<b>70</b>	<b>16</b>

ONDARE GARBIAIN ALDAKETEN EGOERA GUZTIRA	Euroak milakotan				
	FUNDAZIOAREN		DIRU-LAGUNTZA		
	FUNDAZIOAREN	DOTAZIOA	EKITALDIKO	DOHAINT.	
	DOTAZIOA	SOBERAKINAGATIK	SOBERAKINA	LEGATUAK	GUZTIRA
<b>2009-KO URTEKO AZKEN SALDOA</b>	<b>270</b>	<b>425</b>	<b>65</b>	<b>72.615</b>	<b>73.375</b>
Irizpide aldaketagatiko doikuntzak, 2009.....	-	-	-	-	-
II. Errorengatiko doikuntzak, 2009 .....	-	-	-	-	-
<b>DOITUTAKO SALDOA, 2010-EKO URTE HASIERA</b>	<b>270</b>	<b>425</b>	<b>65</b>	<b>72.615</b>	<b>73.375</b>
I. Aitortutako sarrerak eta gastuak guztira .....	-	-	16	-	16
III. Ondare garbiaren bestel. aldaketak .....	-	65	(65)	(4.264)	(4.264)
<b>2010-EKO URTEKO AZKEN SALDOA</b>	<b>270</b>	<b>490</b>	<b>16</b>	<b>68.351</b>	<b>69.127</b>
I. Irizpide aldaketagatiko doikuntzak, 2010 .....	-	-	-	-	-
II. Errorengatiko doikuntzak, 2010 .....	-	-	-	-	-
<b>DOITUTAKO SALDOA, 2010-EKO URTE HASIERA</b>	<b>270</b>	<b>490</b>	<b>16</b>	<b>68.351</b>	<b>69.127</b>
I. Aitortutako sarrerak eta gastuak guztira .....	-	-	70	-	70
III. Ondare garbiaren bestel. aldaketak .....	-	16	(16)	(304)	(304)
<b>2010-EKO URTEKO AZKEN SALDOA</b>	<b>270</b>	<b>506</b>	<b>70</b>	<b>68.047</b>	<b>68.893</b>



## VI. FUNDAZIOAREN ERAIKUNTZA ETA EKIPAMENDU PROZESUA LEGEZKOA DEN AZTERTZEA

Atal honetan Fundazioaren eraikuntza eta ekipamendu prozesua hasi zenetik 2010eko abenduaren 31ra arte izapidetutako kontratazio espedienteen eta beste gastu batzuen azterketan azaleratu diren ez-betetze eta hutsak barne hartzen dira.

### VI.1 LEGEA BETETZEARI BURUZKO IRITZIA

#### Kontratazioa (ikus A.13)

1. Aztertu ditugun espedienteetatik 13tan, 6,5 milioi euroren esleipen zenbatekoarekin, premia arrazoiengatik bizkortutako prozedura mugatua baliatu da, espedienteen justifikatu ez delarik baliatutako prozedura behar atzeraezin bat edo guztien intereseko arrazoi bat artatzeko izan denik (11, 12, 13, 14, 15, 16, 17, 18, 19, 20, 21, 22 eta 23 espedienteak).  
Aurreko 13 espedienteetarik batek ere ez du kontratazio atalak egindako premia izendapena jasotzen, behar bezala arrazoitua, SPKLren 121.1 artikulua agintzen duena.
2. Guztira 240.115 euroan esleitutako espediente batean ez da lizitazioa DOUEn argitaratu, APKLTBren 2 eta 78 artikulua urratuz (7. espedienteak).
3. Prozedura mugatu bidez izapidetutako hornidurako 2 espedientetan eta 616.935 euroan esleitutakoak, SPKLren 150.1 eta 2 artikulua urratu da, hautatutako enpresei luzatutako gonbidapenetan pleguetako baldintzak aldatzean (15 eta 23 espedienteak).
4. Hornidura espediente batean (17. espedienteak), 675.000 euroan esleitua, lehiatzaileetako bat kanporatu da, batere arrazoitu gabe.
5. Obra nagusi eta zerbitzu baten aldaketa modura izapidetu dira espediente horiekin zerikusirik ez duten obra, zerbitzu eta hornidurei dagozkien lanak. Kontratu hauek ATKLTBren XG seigarrenean ezarritako publikotasun eta lehia printzipioen arabera lehiatu behar ziratekeen. Aldaketa hauen zenbatekoa 1,7 milioi eurorena izan zen (1 eta 6. espedienteak).
6. Guztira 11,9 milioi euroan esleitu ziren 15 espedientetan ez da agiri bidez erasota utzi balio judizioen bidez neurgarriak ziren irizpideen balorazioa formula bidez kuantifikagarriak ziren haiek baino lehenago egin zenik eta horrek SPKLren 134.2 artikulua urratzen du (4, 8, 11, 12, 13, 14, 15, 16, 17, 18, 19, 20, 21, 22 eta 23 espedienteak).

Epaitegi honen iritzira, Automotive Intelligence Center Fundazioak, aurreko 1etik 6ra bitarteko paragrafoetan aipatutako ez-betetzeak alde batera, zuzentasunez bete du 2006tik 2010era bitarteko ekitaldietan eraikuntza eta ekipamendu prozesua arautzen duen lege arautegia.

## VI.2 BESTELAKO HUTSAK ETA GOMENDIOAK

### Kontratazioa (IKUS A.13)

1. Aztertu diren kontratuetatik 23ren esleipen irizpideak, 36,4 milioi euroan esleitutakoak, enpresen kaudimenarekin loturiko alderdiak balioztatzen dituzte (giza eta gauzazko baliabideak, kalitatea ziurtatzeko plana eta prestakuntzaren antolamendua eta plana), APKLTBren 17, 18, 19 eta 86 artikuluetan eta SPKLren 53.2, 131.2 eta 134 artikuluetan ezarritakoaren aurka. Gainera, prezio eta epe irizpideak ez dira proportzionalak (1, 2, 3, 4, 6, 7, 8, 11, 12, 13, 14, 15, 16, 17, 18, 19, 20, 21, 22, 23, 24, 25 eta 26 espedienteak).
2. Guztira 1,4 milioi euroren zenbatekoan esleitutako 2 zerbitzu espedientetan, ez dira arrazoitzen lehiatzaileei emandako puntuazioak, baldintzen pleguan aurreikusitako esleipen irizpideen arabera (6 eta 7 espedienteak).
3. Guztira 2,9 milioi euroan esleitutako 5 espedientetan ez da justifikatzen esleipen hartzailea zerga eta gizarte segurantzako obligazioetan eguneratuta dagoenik, SPKLren 135.4 artikulua eta APKLTBren 79.2 artikulua agintzen duena urratuz (7, 12, 13, 16 eta 21. espedienteak).
4. 16,2 milioi euroren zenbatekoan esleitutako 2 espedientetan ez da DOUEn behin-betiko esleipena argitaratu, APKLTBren 93.2 artikulua eta SPKLren 174.1.b artikulua agintzen dutenaren aurka (1 eta 8 espedienteak).
5. Guztira 2,2 milioi euroren zenbatekoan esleitutako 6 espedientetan ez dago esleipendunak behin-betiko bermea aurkeztu duela egiaztatuko duen agiririk. Bermea eratzea SPKLren 83. artikulua arautzen du (8, 16, 18, 21, 23 eta 24 espedienteak).
6. Hornidura kontratu batean (23. espedientea), 238.550 euroan esleitutakoa, enpresa esleipendunak 4 asteko entrega epea eskaini zuen; alabaina, kontratuan 12 asteko epea izenpetu zen, epea aldarazteko justifikaziorik izan gabe).
7. Guztira 1,6 milioi euroren zenbatekoan esleitutako 3 espedientetan, kontratazio atalak ez du adostasun egintza gauzatu (7, 8 eta 12. espedienteak) eta hornidurako horietako batean, harrera aktarik ez zegoenez, ezin egiaztatu izan dugu adostutako entrega epeak bete direla (12. espedientea). KBAek ez dute harrera akta izenpetzeko obligazioa aurreikusten eta kontratu pribatua den aldetik, ez dago hori gauzatzeko obligaziorik; ordea, kontratazio atalak formalki erabakia hartu behar luke adieraziaz obrak lehiatutako proiektuaren arabera garatu direla eta Fundazioaren gogobeteko izan direla, edota hornidura zein zerbitzua baldintzen pleguan eta kontratuan jasotakoari jarraiki gauzatu direla.
8. Obra baten harrera akta (3. espedientea), 4 milioi euroan esleitutakoa, 7 hilabete eta erdiko atzerapenez gauzatu da, kontratuaren 29. klausula urratuz.



## **AIC AUTOMOTIVE INTELLIGENCE CENTER FUNDAZIOAK EGINDAKO ALEGAZIOAK**

### **HKEE-REN SARRERA**

Alegazio-izapidearen egitekoa da auditoria-gai izan den erakundeari fiskalizazioaren ondorioei dagokienegiz egoki iriztitako hura justifikatzeko aukera ematea; ez da, baina, bere lana egiteko eta horren zabala mugatzeko HKEEren eskumena auzitan jarriko duten alegazioak aurkezteko bideratutako izapidea.

Honen harira komeni da alegazioak irakurri aurrean hainbat auziren gaineko informazioa ematea, horiek dagokion testuingurura ekarriko dituen.

1.- Fundazioaren izaera juridiko pribatuari dagokionez eta irizpen honek dituen ondorioez:

- Fundazioak “Euskal Sektore Publikoaren Fundazioen Inbentarioa 2008ko abenduaren 31n” Txostenari jarritako alegazioetan jada jakinarazi zitzaion fundazioa barne hartzea txosten harekin soilik eta bakarrik lotutako parametro batzuei zegokiela eta parametro haiek baliatuta, Fundazioaren 2008ko abenduaren 31ko ondare garbia, 49 milioi eurorena, honako hauek osatzen zutela: BFaren kapital diru-laguntzek, 42,2 milioi eurorenak; Zornotzako Udalaren jabetzako lursail bat mugagabe erabiltzeko lagapenak, 6,1 milioi euroan balioztatua; hasierako zuzkidurak, 0,3 milioi eurorena; eta ekitaldiaren emaitzak, 0,4 milioi eurorena.

- Bestetara, Herri-Kontuen Euskal Epaitegiaren otsailaren 5eko 1/1988 Legearen 2.1 artikulua araberak, fiskalizazio ondorioetarako Sektore Publikoa diru edo baliabide publikoak administratu edo erabiltzen dituen zeinahi erakunde (publiko edo pribatu) da.

HKEEren 1/1988 Legearen 2.1.a in fine artikulua interpretazioan, egiteko fiskalizatzailearen aribide ondorioetarako Euskal Sektore Publikoa osatzen duten erakundeak identifikatzeari dagokionez, HKEEk izaera publiko zein pribatuko erakundeak barne hartu ditu, zeinak funts publikoak erabiltzeaz gainera, SPKLren ondorioetarako “botere esleitzailerik” baten aurrean gaudela esateko bide ematen duten baldintzak betetzen dituzten. Fundazioa botere esleitzailerik da 30/2007 Legearen ondorioetarako, 3. artikulua araberak.

Honenbestez, HKEEren egiteko fiskalizatzailea ez da laguntzen erabilera eta norako zuzena aztertzerak mugatzen; aldiz, jarduera osoa besarkatzen du, Euskal Sektore Publikokoa den bestelako zeinahi erakunderekiko izan ohi den azter-eremu berarekin, HKEEren Legearen 9. eta 10. artikuluetan aurreikusitakoari jarraiki.

2.- Bizkaiko Foru Administrazioaren diru-laguntzei buruzko 5/2005 Foru Araua ezartzeak dagokionez, HKEEren fiskalizazio eremua ez du 5/2005 Foru Arau horrek mugatzen, baizik eta otsailaren 5eko 1/1988 Legeak, azaroaren 25eko 27/1983 Legearen aurreikuspenari jarraiki, EAEren Erakunde Komunak eta Lurralde Historikoetako foru organoen arteko harremaneri buruzkoa, zeinak 30.9 artikuluan Eusko Legebiltzarrari egozten dion lege bidezko HKEEren sorrera eta arautze osoa.



3.- Amaitzeko esan behar da HKEEek bere egitekoen aribidean ez duela inongo neurririk gainditu, izan ere, HKEEren Osokoak onartutako agiriak, egin beharreko lana, xedea eta zabala arautzen dituen, 2006tik 2011ra bitarteko ekitaldiak besarkatzen ditu. Hein berean, fiskalizazio-gai izan den erakundeak ere ez da babesgabe geratu Txostenean azaleratu eta jasotako iritzi eta alderdiak ezagutu, zehaztu eta mugarrizeari dagokionez, izan ere HKEEek une oro Fundazioaren eskura utzi ditu alegazio hauek mamitzeko beharrezko iritzitako datu eta argibide oro.

## 1. AURRETIAZ ADIERAZI BEHARREKOAK

Aurretiaz, oro har, zerbait adierazi beharra dago AIC - Automotive Intelligence Center Fundazioaren izaera juridikoari (aurrerantzean, “AIC Fundazioa” edo “AIC”), bere araubide juridikoari eta jaso dugun txosteneko fiskalizazioaren irismenari buruz (aurrerantzean, “txostena”).

AIC Fundazioa fundazio moduan eratu zen 2006. urtean, eta automobilgintzaren sektorerako balioa sortzen du honako arlo hauetako jardueren bitartez: adimen lehiakorra, prestakuntza, ikerketa eta negozio berrien garapena. Bere kudeaketa-eredua bakarra da munduan, berezko eta besteren gaitasunak uztartzen baititu, automobilgintzako industria osoari balioa eskaintzen dion berrikuntza irekiko ingurunea lortzeko.

Bere izaera juridikoa pribatua denez, AIC Fundazioa ez dago sektore publikoaren barruan. Herri Kontuen Euskal Epaitegiari (“HKEE”) pribatua baino ez den izaera horren eta ondorio horretara iristeko arrazoien berri eman zitzaion Uría Menendez abokatuek 2012ko urtarrilaren 12an egindako txostenaren arabera aurkeztutako alegazioen idazkian. Hain zuzen ere, AIC Fundazioak berak “Euskal Sektore Publikoko Fundazioen Inbentarioa 2008ko abenduaren 31n” behin-behineko agiriaren aurrean aurkeztu zuen idazki hori.

Ondorio horietarako, AIC Fundazioa ez dagoenez sektore publikoaren barruan, HKEEren fiskalizazioa mugatua da, eta ez dago edozein gaitan ezartzerik, jasotako ondasun edo efektu publikoetan baino **ez**, fondo horien fiskalizazioan ezarri daitezkeen arauak kontuan hartuta.

Alde horretatik, AIC Fundazioak jasotako ondasun publiko bakarrak Bizkaiko Foru Aldundiak diru-laguntza moduan emandakoak baino ez dira izan, eta honako helburu honetarako erabili dira: Amorebieta-Etxanoko nahiz Ermuako udalerrietako zentroetako azpiegituretan eta ekipamenduan egindako inbertsioa, eta zentroa abian jartzeagatiko gastuak. AIC Fundazioaren ohiko jarduera sektoreko enpresei emandako zerbitzuen merkaturaketaren eta proiektuetako partaidetzaren bidez finantzatzen da.

2012ko urriaren 23an, AIC Fundaziok gutuna bidali zion HKEEri, HKEEek 2012ko urriaren 10ean egindako agiri-eskabideari erantzuteko asmoz. Gutun horretan bertan HKEEri adierazi zitzaion bezala, Foru Administrazioak Emandako Diru-laguntzen Araubide Juridiko Orokorra arautzen duen maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauko 13.2. artikuluan xedatutakoa kontuan hartuta (“5/2005 Foru Araua”), fiskalizazioaren helburua foru diru-laguntza denean, organo emaileari justifikatzeko betebeharra bete behar da HKEEren fiskalizazioa bideratzeko, eta kontrolaren irismena 5/2005 Foru Arauko 40. artikuluan adierazitako



gaietara mugatu behar da, hau da, diru-laguntzaren lorpen egokia, diru-laguntza kudeatzeko eta ezartzeko betebeharren betearazpena eta justifikazioa.

Horren harira, zehaztu beharra dago HKEEren lan-planean onartutako 2011ko ekitaldiko fiskalizazioaren irismena eta adierazitako urtea baino lehenagoko edozein jarduerarena garai hartan indarrean zegoen legeriaren arabera izan behar direla. Beraz, arauzko esparru horren babespean, laguntzak edo diru-laguntzak jasotzeagatik zenbait erakunderi egin beharreko fiskalizazioan, *“laguntzen erabilera egokia eta helburua”* besterik ez zegoen aztertzerik.

Hori guztiori HKEEri jakinarazi zitzaion 2012ko azaroan (berriro ere), Uría Menendez abokatuek horretarako fiskalizazioaren irismenari buruz egindako txostenaren arabera. Horrela, bada, HKEEk 5/2005 Foru Arauan adierazitako muga hertsien barruan egin behar zuen fiskalizazio hori, eta onartutako planera mugatu behar zen, 2011. urteko planera, alegia. Nolanahi ere, ez du hori guztiori kontuan hartu:

- I. HKEEko Osoko Bilkurak 2012. urterako onartutako lan-planaren arabera, HKEEk 2011ko ekitaldia fiskalizatu behar zuen, eta erreferentzia hori txostenaren izenburuan nahiz zenbait ataletan agertzen da oraindik ere.

HKEEk bere txostenean azaltzen ez dituen arrazoiak direla-eta, 2006tik 2011ra doazen ekitaldiak fiskalizatu ditu.

Bere eginkizunen betearazpenaren muga gaintu duenez, txostenetik bertatik kendu beharko litzateke 2011. urtea baino lehenagoko ekitaldietan gertatutako guztia.

- II. Era berean, HKEEk ez du bere kontrola 5/2005 Foru Arauko 13.2. artikuluan aipatutako gaietara mugatzen. Izan ere, AIC Fundazioaren jarduerako edozein gairi buruzko iritzia ematen du, nahiz eta irizpide horiek fundazioarentzat aplikagarriak ez diren diren eta behar besteko prestakuntza teknikorik ez daukan. Hori dela eta, interpretazio desegokiak egiten ditu bere ondorioetan, eta ez dira ikuskatutako epealdiko benetako kudeaketaren adierazgarri.

Adierazitako guztia kontuan hartuta, AIC Fundazioak borondatez eta une oro lan egin du HKEErekin, fiskalizazioa bera egiteko orduan. Horren erakusgarri, HKEEri ez ezik, hasiera-hasieratik AICren jarduera ikuskatu duten erakunde guztiei ere (BFA, FEDER, Eusko Jaurlaritzako Kontrol Ekonomikoko Bulegoa, Ogasun Ministerioa...) eman die eskatu dioten informazio guztia, bere kudeaketa gardenaren adierazgarri. Gardentasun hori, gainera, are agerikoagoa da HKEEk egindako fiskalizazio horretan, fiskalizazioaren xede zen irismenetik kanpo zeuden agiriak ere aurkeztu direlako.

Beraz, AIC Fundazioak HKEEri eskatu nahi dio bere lana legeak mugatutako esparruaren barruan garatu dezala, bere fiskalizazio-lanaren edukiari eta zenbait aldaketa indarrean sartzeko epeei dagokionez. Horrez gain, ateratzen dituen ondorioetako irizpidea bateratua izan behar dela ere adierazi nahi dio HKEEri, zenbait gaitan HKEEren ondorioak ez datozelako bat gai horiek lehenago fiskalizatu dituzten beste erakunde batzuek ateratakoekin.

Bere eragozpenak adierazteko moduari dagokionez, HKEEk erabilitako estiloaren arabera ia-ia ezinezkoa da egitateak zein legezketasunaren betearazpenari buruz adierazten dituen



iritziak eta iritzi horiek nahiz bere gomendioak nolabaiteko zehaztasunaz bereiztea. Argitasun eta ordena falta hori ere oso nabaria da, espediente berean eragina duten ustezko irregulartasunak atal desberdinetan agertzen direnean.

Fiskalizatutako erakundeari babesgabetasuna sorrarazten dionez, gaitzesgarria ere bada zer bete ez den zehatz-mehatz adierazi gabe akusazio generikoak egitea edo fiskalizatutako subjektuari hirugarrenen egintzak edo akatsak bereak balira bezala egozte.

Aurreko zehaztapenak eginda ,horren ondorioz sortutako adierazpen guztiak oro har ezesteko modukoak dira, eta beti gardentasuna nagusi izanda, jasotako txostenean antzemandako zenbait akats adierazgarri aztertuko ditugu ondoren.





## 2. TXOSTENeko II. ATALAREN INGURUKO ALEGAZIOAK: IRITZIA

### 2.1 LEGEZKOTASUNAREN BETEARAZPENARI BURUZKO IRITZIAREN INGURUKO ALEGAZIOAK

1. Prozedura negoziatu bidez 507.602 euroan esleitu zen zerbitzu espediente batean, nabarmen aldatu dira hasiera batean prozedura murriztu bidez izapidetu zen espedientearen hasierako baldintzak, hutsik geratu zena; horrek SPKLren 154.c) artikulua urratzen du.

*9. espedientea.* Txostenean bertan, aurretiaz bideratutako espedientearen hasierako baldintzak modu nabarian aldatu direla baino ez da adierazten. Hala ere, ez da inolaz ere azaltzen zein diren aldaketa zehatz horiek. Beraz, ez dago eragozpen horri erantzuterik, bi espedienteen artean inolako alderik ez dagoelako, prozedura desberdinak erabiltzean sortzen diren aldeetatik haratago, jakina; baina, ondorio hauetarako, ez dute inolako garrantzirik.<sup>1</sup>

Hasierako espedientearen baldintzak ia-ia bere horretan utzi ziren osteko negoziatuan, eta bertako funtsezko faktoreak errespetatu ziren. Hori egiaztatzeko, prozedura negoziatuaren ostean sinatutako kontratua eta hasierako lehiaketa irekian argitaratutako kontratua erkatu besterik ez dago. Biak berdinak direnez, argi eta garbi dago lizitazioetarako oinarri moduan erabilitako baldintzak ez zirela inondik inora aldatu (erantsitako 2. agiria ikusi).

2. Aholkularitza teknikoaren emateko zerbitzuaren kontratazioa (10 zk. espedientea) 2009an gauzatu zen 96.000 euroren zenbatekoan eta 2009-2011 aldian 133.667 euroren egikaritza izan zuen; ordea, ez da dagokion kontratazio espedientea bideratu KBAen 10.3.b) klausulari jarraiki, ezta luzapen kopuru gehiengoa finkatu ere, KABen 10.5 klausula urratuz.

*10. espedientea.* Aholkularitza teknikorako zerbitzuaren kontratua prozedura negoziatuaren bidez esleitu zen, AICko Kontratuziorako Barne Jarraibideetako (“KBJ”) 10.3. b) klausulan arauketa harmonizatupean ez dauden kontratu etarako aurreikusten den bezala. Horretarako, kasuan kasuko orria prestatu zen, eskaintzak jaso ziren eta balioespenari buruzko txostena egin zen.<sup>2</sup>

Kontratuaren epeari dagokionez, urtebeteko jarraikako epealdietarako isilbidezko luzapena hitzartu zen. Dena dela, horrek ez du esan nahi kontratuaren epea mugagabea

<sup>1</sup> Espedientearen hasierako baldintzak aldatu egin dira (negoziatuarenak murriztuarekiko) xede, epe eta ondorioz, prezioari dagokionez eta aurkeztutako agiriak ez du Txostenean jasotako ez-betetzea justifikatzen. Egoera hauek AIC Fundazioaren ordezkariekin aztertu genituen eta Fundazioak berak mamitutako pleguak alderatuzetik deduzitu dira.

<sup>2</sup> Alegazioaren paragrafo honi dagokionez esan behar da 2008ko kontratu bati dagokiola eta ez 2009an egindakoari, txostenak aipagai duena hain zuzen ere.



zenik, bere helburua proiektua abian jartzeagatik sortutako premiekin zegoelako lotuta. Horren adierazgarri, kontratua bi urteren ostean amaitu zen, behar besteko premiak estali zirenean. Beraz, argi eta garbi dago ez zegoela kontratuaren iraupena inolako beharrik gabe luzatzeko asmorik eta HKEEek adierazitakoa ez dela bidezkoa.<sup>3</sup>

3. 6,1 milioi euroan esleitu zen espediente batean ez da agiri bidez erasota utzi balio judizioen bidez neurgarriak ziren irizpideen balorazioa formula bidez kuantifikagarriak ziren haiek baino lehenago egin zenik eta horrek SPKLren 134.2 artikulua urratzen du (5. espediente).

5. espediente. Espediente horretan, SPKLko 134.2. artikuluan eskaintzak formulen bidez ebaluatzeko ezarritako betebeharra bete zuen AICk, balio-judiziopeko beste irizpide batzuen arabera alde aurretik balioetsi ondoren.

Denborazko arrazoiengatik, honako legeria hau ezarri beharra dago lizitazio horretan: (i) Sektore Publikoko Kontratuei buruzko urriaren 30eko 30/2007 Legea (“SPKL”); eta (ii) urriaren 12ko 1098/2001 Errege Dekretuaren bidez onartutako Herri Administrazioen Kontratuei buruzko Legeko Araudia. Bien bertsioak indarrean zeuden, lizitazioaren iragarkia argitaratu zenean (2008ko abenduaren 30a, 3. agiria ikusi), SPKLko lehenengo xedapen iragankorrean xedatutakoa kontuan hartuta.

Ezarri beharreko legeriaren arabera, lehiaketa honetan formularen bidez kuantifikatu ezin ziren elementuak balioetsi behar ziren lehendabizi; eta formula matematikoen ezarpenarekin lotutakoak, ondoren. Egin zen bezalaxe, hain zuzen ere.

Lehiaketa horretan, ordea, ez zen puntuazioa jakitera eman behar, formularen bidez kuantifikatu beharreko faktoreei buruzko proposamenak jendaurrean ireki baino lehen. Izan ere, betekizun hori geroago ezarri zen SPKLren zati bat garatzen zuen maiatzaren 8ko 817/2009 Errege Dekretuaren bidez.

2009ko Errege Dekretua, hain zuzen ere, dekretu hori indarrean sartu ostean hasitako kontratazio-espedienteetan baino ez da ezartzen. Beraz, agerikoa da espediente deialdia argitaratzean hasi zela (laugarren xedapen iragankorra ikusi). 2009ko Errege Dekretuan, balioespena egiteko moduan kontuan hartu beharreko berritasuna ezarri zen, eta honako hauxe adierazten zen bertako 30.3. artikuluan:

*“Balio-judiziopeko irizpideen araberako haztapena proposameneko gainerako agiriak irekitzeko jendaurreko ekitaldian emango da jakitera, betiere, klausula administratibo partikularren orrietan jendaurrean jakinarazteko ekitaldiari buruz besterik xedatzen ez bada.”*

Hala ere, ikusi ahal izan dugunez, aurreikuspen hori ez dago 5. lizitazioan ezartzerik, deialdia argitaratu zenean ez zegoelako indarrean, besterik ez.

---

<sup>3</sup> Sektore publikoaren esparruan, kontratazioak berariazkoa eta formala behar du izan. Isilpeko birbideratzeak eragotzi egiten du kontratuaren balioetsitako balioa finkatzea, luzapen guztiak besarkatu behar dituen.



Hori dela eta, ez da inolako arau-hausterik antzematen. AIC Fundazioak eskaintzak formulen bidezko irizpideen arabera ebaluatzeko ezarritako betebeharra bete zuen, balio-judiziopeko beste irizpide batzuen arabera aldez aurretik balioetsi ondoren.<sup>4</sup>

4. Mantentze zerbitzuen kontratuan (9. espediente) bi urtetarako esleitu zen 507.603 euroan (2009-2011); ordea, 2011n zerbitzua ematen jarraitzen da dagokion kontratazio espediente bideratu gabe.

9. espediente. Beste akats bat agertzen da txostenean: 2011n, 2009. urtean esleipendun aukeratua izandakoak jarraitzen zuen zerbitzua ematen, kontratuko 6.2. klausulan luzatzeko aukera hori zegoelako aurreikusita.

Aurreikusitako luzapen hori adostasunez hitzartu eta gauzatu zen. 4. agiri moduan erantsi da AICk eta esleipendunak kontratuaren luzapena 2011. urterako hitzartzeko egindako agiriaren kopia.<sup>5</sup>

Txostenean adierazitako salbuespenak ez du inolako zentzurik.

5. Aldaketa modura izapidetu da hainbat obraren exekuzioa, 236.695 euroren zenbatekoan, behin obra nagusia kitatu eta jaso ondoren (5. espediente). Zerbitzu hori kontratazioan buru egiten duten printzipio orokorren arabera izapidetu behar zatekeen.

5. espediente. Hain zuzen ere, aipatutako kontratua aldatu zen, eraikina aurreikusitako erabilerara egokitzeko zenbait obra osagarri egin ahal izateko. Obra horiek, gainera, ezinbestean egin behar ziren kontratua lortzeko, nahiz eta hasierako proiektuan zehaztea ezinezkoa izan zen.

Aldaketaren inguruan aurpegiatutakoa ez da bidezkoa (kontratu-aldaketa bideratzea, obra nagusia likidatu eta jaso ondoren): obra nagusia oso-osorik jaso baino lehen (2010eko uztailaren 30a, aurreragoko datetan jasoketa partzialak egon ziren arren) sinatu zen aldatutako kontratua (2010eko uztailaren 27a). Une horretan, beraz, kontratu nagusia zegoen indarrean. Horrela, bada, erabateko gezurra da aldaketa hori obra nagusia jaso ondoren bideratu zela adieraztea.

*“Kontratazioa arautzen duten printzipio orokorren”* betearazpenari dagokionez, txostenean puntu horri buruz adierazitakoa oso orokorra denez, ez dago egotzitako kritika zehatza zein den jakiterik. Horren ondorioz, ageriko babesgabetasuna sortzen da, eta horren inguruko alegazioak egiteko aukera desagertzen da.

Nolanahi ere, kontratu nagusia indarrean zegoen bitartean bideratu zen aldatutako kontratua, eta zehatz-mehatz bete ziren denborazko arrazoiengatik garai hartako kontratazio publikoan ezarri beharreko legeriako printzipioak eta betekizunak (5. paragrafoan adierazi duguna hartu behar da kontuan): SPKLn xedatutakoaren arabera egindako aldaketaren bidez, kontratista nagusiari eskatu zitzaion zenbait obra osagarri

<sup>4</sup> Agiri hau ez dago espedienteen jaso eta ez da alegazioetan aurkeztu.

<sup>5</sup> Kontratuaren esleipendun izan den erakundeaz bestelako enpresa batek izenpetutako dokumentazioa aurkeztu da.



egiteko. Izan ere, ezinbestean egin behar ziren eraikina aurreikusitako erabileretara egokitzeko, nahiz eta hasierako proiektuan zehaztea ezinezkoa izan zen. Obra horien zenbatekoa, gainera, jatorrizko kontratua esleitzeko prezioaren %4tik beherakoa izan zen.

Jatorrizko kontratuan eta SPKLn baimendutako mugen barruan egin zen aldaketa, azken horren arabera badagoelako aldaketak egiterik eta prestazio osagarriak kontratatzerik.

Inolako arau-hausterik antzematerik ez dagoenez, egiaztatu egiten da AICk zehatz-mehatz bete zuela ezarri beharreko legeria kontratu-aldaketa bideratu zuenean.<sup>6</sup>

6. Sarrereren kontuak aztertzean ondoko egoera hauek azaleratu zaizkigu:

- Zerbitzua eman eta espazioak erabiltzeagatik prezioak (laborategiak, garapen unitateak...) ez ditu Fundazioaren inongo atalek onartu (ez Patronatuak, ez Batzorde Eragileak ere).
- Ezarritako prezioen taulak ez du zerbitzu guztientzako tarifa ezartzen eta zehaztuak dauden haietan ez digute xehapena justifikatu. Aurreikusi gabeko prezioak kasu bakoitzean modu askean zehazten dira.
- Kontratuetan espazioen alokairu kontzeptuan zehaztutako prezioak bat-bateko izaerarekin murriztu egiten dira pizgarrien bidez, Fundazioaren inongo atalek onartu ez dituztenak (ez Patronatuak, ez Batzorde Eragileak ere). Aztertu diren bost kontratuetan Fundazioak ezarritako deskontuak 665.801 euro egin ditu 2009-2011 aldian.

Txostenean adierazitakoaren arabera, fundazio publikoak kudeatzeko berezko arauak eta printzipioak ezarri nahi dizkiote AICri. Hori dela eta, ageri-agerikoa da ez dakitela zein den AICren beraren izaera, bere araubide juridikoa eta, are garrantzitsuago dena, bere jarduera garatzen dueneko eremu pribatu-pribatua.

Aurretiaz adierazi beharrekoetan azaldu bezala (hain zuzen ere, bertara joko dugu esandako guztia inolako premiarik gabe ez errepikatzeko), AIC Fundazioa pertsona juridiko pribatua denez, ez dago sektore publikoko fundaziotzat hartzerik. Horren ondorioz, kontratazio publikoari edo diru-laguntzei buruzko legeriaren arabera arautzen deneko kasuak alde batera utzita, AICk Zuzenbide Pribatuaren arabera bakarrik diharduela esan beharra dago.

Beraz, ez da bidezkoa eta, ondoren justifikatuko dugunez, ez da zuzena txostenean bertan AICk diru-sarrerak sorrarazten dizkioten prestazioak kudeatzeko erabilitako moduaren inguruko edozein eragozpen edo gomendio egitea:

- I. Lehenengo eta behin, alokairuen prezioak AICko Patronatuari 2007an aurkeztutako Plan Estrategikoan hartu zirelako kontuan (5. agiri moduan erantsi da plan

---

<sup>6</sup> Obra hartzeko akta formala 2010eko martxoan egin zen eta bertan adierazten da "obra amaitua dago eta egiaztatu da amaiera, berrikuspen txikiak gauzatzeko daudela, obra hartzeari dagokionez erabiltzeko aukeran eraginik ez dutenak".

estrategikoaren testu-zati bat; eta, 6. agiri moduan, Patronatuaren akta). Horrez gain, organo horri urtero aurkezten zaizkion kudeaketa-planen esparruan aztertu eta onartu ziren.

- II. Bigarrenez, zerbitzu guztietarako prezioen ezarpenari dagokionez, berrikuntza irekiko AIC zentroak zerbitzu heterogeneoak, zabalak eta espezializatuak ematen ditu, eta proiektuak lan egiten du. Horrez gain, automobilgintzaren sektore zorrotzean estali beharreko premiak aldagarriak dira oso. Hori guztiori dela eta, ezinezkoa da (baita alferrikakoa ere) zerbitzu guztien prezioaren xehetasunak ematea.

Modu grafikoan ulertzeko moduko adibidea jartzearen: urtero, AICk 30 prestakuntza-ikastaro baino gehiago antolatzen ditu *ad hoc*, eta, ikastaro bakoitzean, zenbait aldaketa ematen dira honako arlo hauetan: iraupena, lekua, hizlarien kopurua, euren prestakuntza (titulazioa, esperientzia, jatorria...), hizkuntza, egitura, kalitatea, euskarri fisikoak nahiz ikusizkoak eta hasiera batean zehaztu ezin diren beste elementu asko.

Nolanahi ere, AIC Fundazioak badu enpresa-irizpide argirik, zerbitzuen prezioak nola eratu behar diren jakiteko. Izan ere, txostenean baieztatu bezala, “diru-sarrerak” ez ezik, prezio horiek harreman-tresna ere badira, eta zerbitzu-motara, bezero-motara nahiz mozkin-marjinara egokitu behar dira prestazio-modalitatearen arabera.

- III. Hirugarrenez, ez da egia txostenean eremuen alokairurako kontratuetan “gerora” egindako eta AICko organoek ez onartutako ustezko “murrizketei” buruz adierazten dena: alokairu horietarako prezioak Patronatuak onartutako Plan Estrategikoan zehaztu ziren, eta zentroaren lehenengo bi urteetan maizterrei eragindako kalteak hartzen zituzten kontuan, instalazioak egokitzeko obrak eta 2. faseko zabalkuntza egin behar izan ziren-eta. Den-dena ingurune fisiko berean egin zen, gainera. Are gehiago, kontratuen baldintzak Patronatuko bileretan aztertu eta onartu dira (erantsitako 6. agiria ikusi).

Hori guztiori dela eta, AICri ezin dizkiote txostenean aipatutako arauak eta printzipioak ezarri, eta, irizpide horiek baldintza hipotetiko hutsetan ezarrita ere, ez litzateke inolako arau-hausterik antzemango.<sup>7</sup>

7. 2011ko ekitaldian AIC Scope SL eta AIC Start SL sozietateen sorrera Batzorde Eragileak onartu du eta ez Fundazioaren Patronatuak; horrek Fundazioen Legearen 17.1 artikulua urratzen du, zeinak agintzen duen inola ere ez direla eskuordetuko ohiko kudeaketaz haratagokoak diren ekintzak (ikus A.4).

<sup>7</sup> Aurkeztutako dokumentazioak ez du esan nahi Patronatuak onetsi duenik. Zerbitzuen prezioak ezartzerakoan AIC Fundazioa objektibotasun printzipioari meneratzen zaio (CEren 103.1 art.) eta ez du bestelako zeinahi enpresa-irizpiderekiko kontraesanekoa zertan izan.



Adierazpen hori desegokia da erabat. AIC Scope, S.L. eta AIC Start, S.L. sozietateak Fundazioei buruzko Legearen arabera eratu dira, eta, unean-unean, Patronatua jakinaren gainean egon da beti.

Patronatuak 2010eko uztailaren 23an egindako bileran, gai-zerrendako 2. puntuan (“AICren proiektuaren eta jardueren aurkezpena”) aurkeztu zitzaizen patronoei, eta “*adimen lehiakorren*” proiektuko Bideragarritasun Plana onartu zen, automobilgintzaren sektorean oro har helburu horretarako zerbitzuak eskaini ahal izateko. Hain zuzen ere, horrexegatik eratu ziren txostenean aipatzen diren sozietate horiek. Plan horren testu-zatia erantsi da 8. agiri moduan.

Ondoren, Patronatuak 2011ko ekainaren 22an egindako bileran, gai-zerrendako 2. puntuan (“AICren jarduera-lerroen aurkezpena”) jakinarazi zitzaizen patronoei bi sozietate horiek eratuko zirela: AIC Scope, S.L. eta AIC Start, S.L. Patronoei emandako eta aktako eranskin moduan atxikitako agirietan, etorkizuneko sozietateen izena eta helburua zein izango ziren azaltzen zen (Patronatuaren aurkezpenaren testu-zatia ikusi; 9. agiri moduan erantsi da).

2011ko irailaren 20an, Patronatuak onartutako jarduera-lerroak betetzeko asmoz, Batzorde Betearazleak sozietateak eratzeko terminoak zein baldintzak onartu zituen, eta Zuzendaritzari eman zion ahalordea, bi sozietate horiek eratu zitzaizkion.

Hiru patronok osatutako Batzorde Betearazlea Patronatuak 2007ko ekainaren 22an hartutako erabakiaren bidez sortu zen. Horrez gain, Batzorde Betearazle horri berariaz eskuordetu zitzaizkion Patronatuak erabakiak hartzeko zituen eskumen guztiak, indarreko legeriaren arabera eskuordetu ezin direnak izan ezik. Euren artean, ohiko kudeaketatik haratago doazen egintzak daude, hain zuzen ere, Euskadiko Fundazioei buruzko Legeko 17. artikuluan xedatu eta txostenean adierazten den bezala.

AICren jarduera-lerroen aurkezpenaren esparruan, AIC Scope, S.L. eta AIC Start, S.L. sozietateen eraketa jakinarazi eta Patronatuak onartu zuenetik, Batzorde Betearazleak betearazpenari begira garatutako egintzak Fundazioaren ohiko kudeaketaren barruan daude, eta ez dute Euskadiko Fundazioei buruzko Legeko 17. artikuluan inposatutako muga gainditzen. Bestetik, AIC Fundazioaren Estatutuak *in fine* 2. artikuluan aurreikusitakoaren arabera, badago sorrera-helburuak zeharka erabiltzerik sozietateak sortuz gero. Beraz, esan gabe doa Estatutuak mugak oso-osorik errespetatzen dituen ohiko kudeaketako egintzaren aurrean gaudela.

Azkenik, nabarmendu behar da Patronatuak 2011ko abenduaren 2an egindako bileran patronoei bi sozietateen eraketaren berri eman zitzaizkion berrituz, Fundazioko Kudeaketa Planaren esparruan. Horrez gain, honako hauxe ere erabaki zen bertan: (i) AIC Scope, S.L. sozietateko zuzendaria kontratatzea; eta (ii) Zuzendaritzari behar besteko ahalordea ematea honako honexetarako: “(i) *adierazitako sozietateen kapitala egokiak edo beharrezkoak diren termino eta baldintzen arabera gehitzea; (ii) Fundazioaren izenean hitzartutako kapital soziala gehitzeagatik jaulkitako partaidetza sozialak onartzea eta ordaintzea eta, horretarako, edozein ekarpen monetario edo ez-monetario egitea; (iii) notarioaren aurrean ere, adierazitako sozietateen kapital soziala gehitzeko beharrezkoa edo egokia den edozein agiri publiko edo pribatu*



*sinatzea; eta (iv) ahalorde berezi honetan esleitutako agindua betetzeko beharrezkoa den edozein agiri izenpetzea.”*

Azken batean, Batzorde Betearazleak erabaki hori gauzatzeko gaitasuna zeukan, eta, horrez gain, Patronatuak ostean hartutako erabakien ondorioz, Batzorde Betearazleak berriaz berretsi behar zuen jarduketara hori. Hori dela eta, txostenean adierazitako ondorioa ez da zuzena.<sup>8</sup>

8. Epaitegi honen iritzira, Automotive Intelligence Center Fundazioak, 1etik 7ra bitarteko paragrafoetan aipatutako ez-betetzeak alde batera, zuzentasunez bete du 2011ko ekitaldian ekonomia-finantzaren jardura arautzen duen lege arautegia.

HKEEK paragrafo horretan laburbiltzen du legezketasunaren betearazpenari buruz daukan iritzi orokorra. Dena dela, AIC Fundazioaren iritziz, modu partzialean egiten du bi arrazoiengatik:

- I. Lehenengo eta behin, inolako arrazoirik gabe erlatibizatzen duelako legezketasunaren betearazpen-maila. HKEEK antzemandako ustezko ez-betearazpenak bere txosteneko aurreko 1.-7. puntuetan azaldutakoak baino ez badira, ez dago inolaz ere ulertzerik gainerako legezketasunaren betearazpena zergatik den “zentzuzkoa” eta ez erabatekoa.
  - II. Bigarrenez, 2011ko ekitaldira mugatzen duelako bere iritzia, egia esan 2007tik 2011ra doazen ekitaldiak (biak barne) fiskalizatu dituenean; eta, zenbait gaitan, 2006ko ekitaldia ere bai.
- Hain zuzen ere, txosteneko 1.-7. puntuetan adierazitako salbuespenetan, gehienetan 2011ko ekitaldiarekin zerikusirik ez daukaten jarduketak aipatzen dira.

Beraz, txostenak gutxieneko barne-koherentzia izan dezan, bi aukera ditu HKEEK: bere edukitik 2011ko ekitaldikoak ez diren gai guztiak kentzea (HKEEko Osoko Bilkurak onartutako Lan Plana gainditzin dutelako); edo benetan fiskalizatutako epealdiaren ondorioak aipatzea eta AIC Fundazioak “*2006tik 2011ra doazen ekitaldietan bere jardura ekonomiko finantzarioa arautzen duen legezko araudia bete duela*” adieraztea.<sup>9</sup>

<sup>8</sup> Patronatuak ez zituen sozietateak eratzeke baldintzak onartu eta Batzorde Eragileak egin zuen. Fundazioak bere helburuen zeharkako aribiderako sozietate bitartekariak sortzeko estatutuetan egiten den aurreikuspena ez da kudeaketa arruntaren baliokide.

Fundazioen 12/1994 Legeak berriaz eragozten du kudeaketa arruntaz haratagoko ekintzak eskuordetzea eta honenbestez, ez daiteke berrespen bidez zuzendu.

<sup>9</sup> HKEEK adierazitako iritzia arrazoitua eta koherentea da Osokoak onartutako fiskalizazioaren esparru eta zabalari dagokionez, fiskalizazio txostenaren I. atalean zehazten dena, eta sektore publikoaren auditoriako arau teknikoetan ezarritakoa betetzen du, HKEEK txosten guztietan baliatzen duena.



Benetan zentzugabea da eta irakurlea benetan nahasteko modukoa da HKEEk bere fiskalizazioa 2006. urtera arte eramatea eta, gero, AIC Fundazioak legezkotasuna 2011n bakarrik bete duela adieraztea.

Bestetik, ez da gauza bera urtebeteko jarduera-epealdian edo sei urteko epealdian hamar salbuespen egitea, batez ere aurreko urteetan AICren proiektua 24 hilabetetik beherako epean abian jarri denean eta kontratazioaren kopurua 150 esleipenetik gorakoa eta 45 milioi eurokoa izan denean.

## 2.2 URTEKO KONTUEI BURUZKO IRITZIAREN INGURUKO ALEGAZIOAK

1. Zornotzako lursailen erabilera eskubideak 6,1 milioi euroren zenbatekoa egiten zuten; eskubide horiek balioztatzen dituen dokumentazio euskarria ez da egokia erregistraturiko zenbatekoa zehazteko. Bestetara, Ermuko lursailen erabilera eskubideak 3,6 milioi euroan balioztatu ziren, 2007ko urtean lursaila erosi zen unean merkatuan zuen balioaren arabera. Alabaina, merkatu balio hori ez zen eguneratu lagapena egin zen datan, 2011ko otsailaren 22an (ikus A.3).

Txostenean bertan lursailak erabiltzeko eskubideen kontabilitate-balioespenaren inguruan adierazitako eragozpenek ez dute inolako oinarririk zenbait arrazoiengatik:

- I. Amorebietako lursailak erabiltzeko eskubidearen balioespena: 2007ko maiatzaren 28an eskuetsitako eskritura publikoan, udal-lurzatiaren erabilera Fundazioari 6.118.320 euroko zenbatekoan dohainik lagatzea balioetsi zen, udal-txostenen arabera.

Fundazioak alderdi esku-hartzaileek zehaztutako zenbatekoa hartu du zentzuzko balioztat, ibilgetu ukiezin moduan kontabilizatzeko orduan.

Lagapen-eskritura ondasunaren zentzuzko balioaren erreferentzia onena da, eta, aldi berean, kontuan hartu beharreko kontabilizazio-irizpidea ere bada kontabilitateko arauen arabera.

- II. Ermuko lursailak erabiltzeko eskubidearen balioespena: 2011ko otsailaren 22an eskuetsitako eskritura publikoan, AZPIEGITURAK, S.A.U. sozietatearen jabetzako lur-zatiaren erabilera Fundazioari 3.606.072,63 euroko zenbatekoan dohainik lagatzea balioetsi zen, balio hori zelako sozietate lagatzailearen kontabilitatean agertzen zena.

Fundazioak alderdi esku-hartzaileek zehaztutako zenbatekoa hartu du zentzuzko balioztat, ibilgetu ukiezin moduan kontabilizatzeko orduan.

2. Zornotzako Udalak lagatuko lursailen eraikitako eraikinak ez dira Fundazioaren jabetzakoak, jabetza erregistroan jasoa dagoen erregistroaren arabera, zeinetan Udala ageri den horien jabe. Informazio hau ez da horrela jaso Fundazioaren urteko kontuen oroitidazkian, non eraikin horiek bere jabetzakoak direla esaten den. Fundazioa desagertuko balitz, bertako azpiegiturak Udalaren esku geratuko lirateke.





AIC Fundazioak lursailen gaineko ezohiko eta benetako erabilera-eskubidea dauka, eta ez da denborazko mugarik egongo, ondasunak sorreraren helbururako erabiltzen diren bitartean.

Eskubide hori ondare-arloko legeria administratiboaren arabera arautzen da (Herri Administrazioen Ondareari buruzko Legea eta Toki Erakundeen Ondasunei buruzko Araudia, batez ere), eta, hitzartutako epean, behar besteko eskumena ematen dio AIC Fundazioari, lursaila bera eta bertan eraikitako eraikinak jabeak izango lituzkeen eskubide eta betebeharrak berberetzeko.

Horrelako lagapenetan, ondasunak ez zaizkio beti administrazioari itzultzen. Izan ere, legezko epeetan ondasunak zehaztutako helbururako erabiltzen direnean, lagapenaren modua betetzat ematen da, eta, horrela, berezko izaera izango du besterik gabe.

3. Urteko kontuen gaineko iritzian eraginik izan gabe, komenigarri irizten diogu kontuan hartzeari, egoki interpretatzeko, Zornotzako Udalak lagatutako lursailak Lurzoruaren Udal Ondarearen atal direla eta honenbestez, egindako lagapena ez zaiola ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 111, 112 eta 115 artikuluetan, Euskal Herriko Lurzoru eta Hirigintzari buruzkoa, ezarritakoari egokitzen, udal ondarea osatzen duten ondasun eta eskubideen norakoa arautzen dutenak; honenbestez, lagapena kostu bidez egin behar zatekeen eta lehiaketa publiko edo truke bidez. Egitate honek Fundazioa zalantza egoeran jartzen du sozietatearen egoitza hartzen duten lursailen erabilera eskubidea galtzeko balizko egoeraren aurrean.

AIC Fundazioak ez dauka inolako erantzukizunik beste batzuek lursailen erabilera lagatzeko aurretiaz hartu dituzten erabakietan eta egintzetan. Nolanahi ere, HKEE bete-betean erratu da bere iritzian.

Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legeko 117. eta 188. artikuluetan xedatutakoaren arabera, Udalaren Lurzoru Ondareko ondasunen doako lagapen zuzena baimendu daiteke. Era berean, Amorebieta-Etxanoko Udalak irekitako udal-espeditetan egiaztatzen da agindu horietan eskatutako betekizunak betetzen direla.

Azkenik, HKEEren proposamena onargarria izango balitz ere, AIC Fundazioak ez luke inolako ziurgabetasunik edukiko. Izan ere, Amorebieta-Etxanoko Udalari egozteko moduko arrazoiaren ondorioz lagatutako erabilera eskubidea modu hipotetikoan galduko balu, AIC Fundazioak kalte-ordaina eskatzeko eskubidea izango luke, eta, besteak beste, eraikitakoaren balioa kontuan hartuko litzateke bertan.<sup>10</sup>

---

<sup>10</sup> Lursailen eta eraikinen erabilera galtzeak, kasua balitz, Fundazioaren aribidean eta fundazioaren xedeak betetzean eragina izango luke; horregatik, AIC Fundazioarentzat zalantza-iturri da.



### **3. TXOSTENEKO III. ATALAREN INGURUKO ALEGAZIOAK: BARNE-KONTROLERAKO SISTEMEI ETA KUDEAKETA-PROZEDUREI BURUZ ADIERAZI BEHARREKOAK**

#### **3.1 FUNDAZIO MODUAN BETE BEHARREKO BETEBEHAR FORMALEN BETEARAZPENAREN INGURUKO ALEGAZIOAK**

1. Ondotik zehaztutako egintzak ez dira Fundazioen Erregistroan jaso:
  - Batzorde Eragilea sortu eta honi Patronatuaren erabakiak hartzeko eskumen oro eskuordetzea, indarreko legeriaren arabera eskuordetu ezinezko direnak eta Fundazioaren gidalerro diren haiei dagozkienak salbuetsita.
  - 2010eko abenduaren 9tik aurrera patroien izendapena urtebete luzatzea.
2. Ahalordeen emakida Fundazioen Erregistroan lau urteko atzerapenez erregistratu zen.
3. Ez zaio Babesletzari eman Fundazioak Ermuan dituen instalakuntzen berri.
4. Ondotik adierazitako kasuetan Babesletzari ez zaizkio patroiek egindako autokontratazioak jakinarazi (Fundazioen Legearen 14. artikulua, EAEren Industriari buruzko 8/2004 Legearen Xedapen Gehigarri hirugarrenak araututakoaren arabera) (ikus A.10 eta A.11):
  - Fundazioak ACICAErekin zerbitzuak alokatzeko kontratua, 2006ko urriaren 6tik 2011ko abenduaren 31ra bitartean 3,2 milioi euroren egikaritza izan duena.
  - Fundazioak bere patroiangandik eskuratutako diru-sarrerak aretoen alokairu eta zerbitzuen emakida kontzeptuan, 2011n 973.716 euroren zenbatekoan.
5. Ez zaio Babesletzari jakinarazi 2011ko urte amaieran bi sozietate mugaturen sorrera, AIC Start SL eta AIC Scope SL.

Txosteneko 1. eta 3. puntuei dagokienez, nabarmendu behar da inskripzioak ez duela izaera eratzailerik eta formalitate hutsa dela. Alde horretatik, indarreko legeriaren eta Fundazioko Estatutuen arabera garatu dira AIC Fundazioko Patronatuaren eraketa, funtzionamendua, berriztapena eta erabaki-prozesua.<sup>11</sup>

Hori esanda, adierazi beharra dago txosteneko 2. puntuan azaldutakoa ondo dagoela eta ahalordeak 4 urteko atzerapenez inskribatu zirela Erregistroan, noiz eman ziren kontuan hartuta. Edonola ere, Fundazioen Erregistroari bete-betean egotzi beharreko atzerapena da, AICk eskuetsi ondoren bidali zituelako ahalordeak, Erregistroan inskribatu zitzaten. Horrela, bada, HKEEk ezin du esan AIC bera erantzulea denik, Fundazioko Patronatuaren erabakiak inskribatzeko orduan atzeratu dena Fundazioen Erregistroa bera izan denean. Hori dela eta, puntu hori kendu beharko luke txostenetik.<sup>12</sup>

<sup>11</sup> Honako artikulua hauek urratu dira: Fundazioen 12/1994 Legearen 17.2 artikulua; Fundazioen Erregistroaren Erregelamendua onesten duen 101/2007 Dekretuaren 31. artikulua; eta AIC Fundazioaren gizarte estatutuen 5. artikulua.

<sup>12</sup> Fundazioen Erregistroan sarrera erregistroaren data 2010eko abenduaren 17a da. Erregistroak 5 egun behar izan zituen izen-ematea gauzatzeko, behin dokumentazioa jaso ondoren.



4. puntuari dagokionez, oso gogoan eduki behar da AIC Fundazioa Euskal Zientzia eta Teknologia Sarearen barruan dagoela. Horrez gain, egindako kontratuak publikoak direla eta merkatuko zentzuzko prezioak erabili direla kontuan hartuta, AICk behar besteko eskumena dauka, Patronatuko kideak diren enprekin kontratatu ahal izateko, babesletzari horren berri eman gabe.<sup>13</sup>

Bestetik, txosteneko 5. puntuari dagokionez, AIC Scope eta AIC Start sozietateak sortzeko, ez da horren berri eman behar, enpresa-jarduera berrien hasiera baino ez delako jakinarazi behar. Nolanahi ere, sozietate horiek garatzen dituzten jarduerak sorrera-programan adierazitakoak bezalakoak direnez, ez zaio Fundazioen Erregistroari berriro jakinarazi behar.<sup>14</sup>

### 3.2 AURREKONTUAREN ETA KONTABILITATEAREN INGURUKO ALEGAZIOAK

6. 2011ko ekitaldiari dagokion gastu eta sarreraren aurrekontuak ez du oroitidazki azaltzailea besarkatzen eta horrek Fundazioen Legearen 26.2 artikulua agindutakoa urratzen du. Bestetik, Fundazioak aurkeztutako aurrekontu-likidazioa ez zaio apirilaren 30eko 776/1998 Errege Dekretuak onesten duen ereduari egokitzen, zeinak Kontabilitate Plan Orokorra irabazi asmorik gabeko erakundeei egokitzeko arauak eta horien aurrekontu informazioko arauak onesten dituen (ikus A.12).

Bere gastuen eta diru-sarreraren aurrekontua aurkeztu eta egokitzeko orduan, AICk bere jarduerako sektorearen eta bertako patronoen berezitasunak hartzen ditu kontuan, aurrekontuen eta zenbateko egozgarrien ikuspegi orokorra eskaintzeko asmoz. Halaber, kasuan kasuko desbideraketak ere zehazten ditu, egon baleude.

Fundazioaren ustetan, askoz eraginkorragoa eta erabakigarriagoa da aurrekontua horrelaxe aurkeztea. Hori dela eta, informazio-premien errealitatera hobeto egokitzen den ulerkuntzarako ezartzen du.

7. Galera-irabazien kontuak ez du II. fasea finantzatzeko eskatutako mailegutik eratorritako finantza gastuei dagokien zenbatekoa barne hartzen, 663.570 euroren zenbatekoan, ez eta gastu hau finantzatzen duten diru-laguntzen atala ere. Egoera hau 2010eko ekitaldian ere gertatu zen 732.535 euroren zenbatekoarekin. Erregistro eza honek ez du eraginik bi ekitaldien emaitzetan.

Fundazioko galeren eta irabazien kontuan, II. fasea finantzatzeko jasotako maileguaren ondorioz sortutako gastu finantzarioen zenbatekoak azaltzen dira. Dena dela, ez da

<sup>13</sup> AIC Fundazioa Zientzia eta Teknologiaren Euskal Sarean barne hartzeak Babesletzari baimena eskatzetik salbuesten du, baina 8/2004 Legearen XG hirugarrena urratu da, autokontratazioen berri hari emateko obligazioa ezartzen duena.

<sup>14</sup> Fundazioei buruzko 12/1994 Legearen 25. artikulua eta Euskal Herriko Fundazioen Babesletzari buruzko Erregelamenduaren 100/2007 Dekretuaren 28. eta 29. artikuluek sozietateen bitartez gauzatzen diren jardueren berri Babesletzari emateko agintzen du. Gainera, Estatutuen 15. artikulua urratu da, sozietateetan esku hartuz gauzatzen dituen jardueren berri Babesletzari emateko obligazioa ezartzen baitu.



aparte agertzen, zenbateko beragatik jasotako diru-laguntzaren neto moduan aurkezten delako.

Bere zenbatekoaren xehetasunak honako honexetan ematen dira zatikatuta: urteko kontuen memoriako 13. oharra; diru-laguntzak, dohaintzak eta legatuak (2011ko eta 2010eko ekitaldietan II. faseko laguntzak izandako bilakaeraren berri ematen duen puntuan); kostu finantzarioaren nahiz bere zenbateko metatuaren ezarpena; eta kasuan kasuko diru-laguntzaren ezarpena (erantsitako 11. agiria ikusi).

### 3.3 KONTRATAZIOAREN INGURUKO ALEGAZIOAK

8. Fundazioaren KBAek erregulazio harmonizatuari lotzen ez zaizkion kontratuen esleipenean ez dute lehia sustatzea aurreikusten 50.000 euro baino gutxiagoko kontratuetan, ez eta 200.000 euro baino gutxiagoko obra kontratuen publizitatean, ez eta 60.000 euro baino kopuru txikiagoko gainerakoetan ere; horrek SPKLren 175 a) eta c) artikulua urratzen du. Fundazioaren KBAak ez dira kontratugilearen profilean argitaratu, SPKLren 175. artikulua agintzen duenaren aurka. Gainera, kontratugilearen profila euskarritzen duen informatika sistemak ez du informazioaren hedapen publikoa zein unetan hasten den modu frogagarrian egiaztatzen utziko duen gailurik eta abian den ekitaldiari buruzko informazioa soilik bistaratzen du, kontsulten historikorik izan gabe.

Txostenean azaltzen diren hiru salbuespenak desegokiak dira. Lehenengo eta behin, txostenean bertan adierazten da KBJetan aurreikusitako prozedurak ez direla SPKLren araberrakoak eta arau horretako 175. artikuluan xedatutako printzipioak ez direla bermatzen.

SPKLk zenbait eskakizun-maila bereizten ditu bere ezarpen-eremu subjektiboan. SPKLko 175. artikuluan, administrazio publikoak ez diren esleipen-botereek arauketa harmonizatupean ez dauden kontratuak esleitzean zer prozedura ezarri behar duten xedatzen da. Hain zuzen ere, honako hauxe adierazten da bertan:

*“Arauaketa harmonizatupean ez dauden kontratuak esleitzen direnean, honako xedapen hauek ezarri beharko dira:*

- a) Esleipenean bertan, honako printzipio hauek hartu beharko dira kontuan: publizitatea, konkurrentzia, gardentasuna, isilekotasuna, berdintasuna eta ez-bereizkeria.
- b) Sekzio honetan aipatzen diren erakundeetako organo eskudunek barne-eremuan derrigorrean bete beharreko jarraibideak onartuko dituzte. Bertan, hain zuzen ere, kontrataziorako prozedurak arautuko dira, aurreko letran aipatutako printzipioak benetan betetzen direla eta eskaintza ekonomiko abantailatsuena aurkezten duenari kontratua esleituko zaiola bermatzeko. Jarraibide horiek horren arabera araututako kontratuen esleipenerako prozeduretan parte hartu nahi duten guztien esku jarri beharko dira, eta erakundeeko kontratugilearen profilean argitaratu beharko dira.

Estatuko sektore publikoaren arloan, Estatuko Abokatutzak aurretiazko txostena egin beharko du jarraibideak onartu ahal izateko.



- c) Publizitatearen printzipioaren ondorioz sortutako eskakizunak betetzat emango dira, 50.000 eurotik gorako kontratuen lizitazioari buruzko informazioa erakundeko kontratugilearen profilean argitaratzen denean. Nolanahi ere, kontrataziorako barne-jarraibideek zabalkunderako beste modalitate edo aukera batzuk edo alternatiba gehigarriak ere arbitratu ahal izango dituzte.”

Agindu horren arabera, AICk arauketa harmonizatupean egiten ez dituen kontratuetan, honako araubide hau bete beharko da:

- I. Ez dira derrigorrean ezarri beharko SPKLn administrazio publikoetarako xedatutako lizitazio-prozedurak. Izan ere, legegilearen asmoa horixe izan bazen, arauan bertan xedatuko zuen berariaz.
- II. Honako printzipio hauek betetzea izango da esleipenerako prozedurak ezartzean inposatutako muga bakarra: publizitatea, konkurrentzia, gardentasuna, isilekotasuna, berdintasuna eta ez-bereizkeria.
- III. Publizitatea betetzat emango da iragarkia kontratugilearen profilean argitaratzen denean, baina 50.000 eurotik gorako kontratuetan baino ez da egin beharko. Gero, kontrako *a sensuan*, hortik beherako zenbatekoak dituzten kontratuetan ez da profilean iragarkia argitaratu behar dela adierazten.

Laburbilduta, AICk askatasun osoa dauka arauketa harmonizatupean ez dauden kontratuen esleipenerako prozedurak diseinatzeko orduan, betiere, lehen aipatutako printzipioak errespetatzen baditu.

Publizitatearen eta konkurrentziaren printzipioei dagokienez, SPKLn ez da euren irismenari buruzko zehaztapen handiagorik ezartzen. Kontrataziorako Aholku-batzordeak aholku-organoak direnez, honelaxe laburtu daitekeen doktrina ezarri dute horri dagokionez:

- I. Kontratazioan bertan publizitatearen eta konkurrentziaren printzipioak bete behar badira ere, horrek ez du esan nahi SPKLn zehaztutako kontratazio-prozedurak ezarri behar direnik.
- II. Publizitatearen eta konkurrentziaren printzipioak malgutasunez bete behar dira, eta zentzuz egokitu behar dira eragiketa bakoitzaren ezaugarri berezietara. Azken batean, eraginkortasunaren irizpide objektiboen aurkakoak diren esleipen arbitrarioak saihestea da helburua.
- III. Ez dago arau edo irizpide orokorrik, printzipio horien ezarpena kasu bakoitzean nola zehaztu behar den jakiteko. Beraz, sozietateak berak aztertu beharko du suposamendu bakoitzeko inguruabar partikularrak kontuan hartuta.

Alde horretatik, Aragoiko Kontratazio Administratiborako Aholku Batzordeak martxoaren 3ko 1/2008 Interpretazio Zirkularrean adierazi duenez, ez da gauza bera arauketa harmonizatupean ez dauden kontratuetan administrazio publikoak ez diren sektore publikoko erakundeek bete beharreko “*printzipioak*” ezartzea edo SPKLko “*aginduak*” ezartzea. Hori dela eta, onartutako KBJetan badago esleipen-prozeduretarako egokiena den araubidea zein den aurreikusterik, betiere, SPKLko 175. artikuluan aipatzen diren printzipioak bermatzen badira.



Hori dela eta, arauketa harmonizatupean ez dauden kontratuei dagokienez, SPKLk administrazio publikoak ez diren esleipen-botereen esku uzten du modu generikoan aipatutako publikitatearen eta konkurrentziaren helburu horiek lortzeko prozedura egokien eraketa. Horren ondorioz, ez dute administrazio publikoetarako aurreikusitako prozedura berberak zertan ezarririk.

Hori guztiori azalduta, nahikoa da AICko KBJetan aurreikusitako prozedurak labur-labur aztertzea, legezketasunaren arabera direla adierazteko, publikitatearen eta konkurrentziaren printzipioak betetzen dituzte-eta. AICko KBJek, hain zuzen ere, esleipenerako zenbait prozedura arautzen dituzte, euren zenbatekoaren arabera kontratuak zer mailatan sailkatzen diren kontuan hartuta:

- I. 1. maila: 50.000 euroko edo hortik beherako balio zenbatetsia duten kontratuak, kontratu-mota edonolakoa dela ere.

Kontratu horietarako, eskaintza bakarra eskatu daitekeela aurreikusten da KBJetan. Agerikoa denez, ez lirateke konpentsatuko suposamendu horretan ohiko kontratazio-espedita bideratzean AICrentzat eta ustezko lizitatzailentzat sortuko liratekeen kudeaketa eta gastu handiagoak, kontratuaren prezioa oso txikia delako. Beraz, kontratazioa arintzea da helburua, baina kontratazio publikoa arautzen duten printzipioak inolaz ere urratu gabe.

Izan ere, SPKLko 122. artikuluan administrazio publikoetarako araututakoa bezalakoa da sistema hori (izapide-prozedura erraztua da, eta “*zuzenean*” esleitu ahal zaio “*edozein enpresariri*”), nahiz eta zerbitzuen kontratuertarako zenbateko handiagoa zehazten den. Agindu horretan adierazten denez, gainera, 50.000 eurotik beherako kontratuak txikiak izango dira, obretako kontratuak direnean; baina 18.000 eurokoak ere, beste era bateko kontratuak direnean. SPKLn xedatutakoaren arabera, bere zenbatekoaren arabera kontratua txikitzen hartzen denean, zuzenean esleitu ahal izango da.

Araubide erraztu horren oinarria jarduketan administratiboko eraginkortasunaren eta egokitasunaren printzipioetan datza: esleipenerako ohiko prozedura bideratzean sortutako kostu handiak (denboraren, giza baliabideen eta baliabide materialen aldetik) ez daude justifikatuta, kontratuaren zenbatekoa txikia denean. Hain zuzen ere, horixe bera gertatzen da kasu hauetan.

Hori dela eta, AICko KBJetan araututako prozedura kontratu publikoei buruzko legeriaren arabera da erabat, eta, are gehiago, antzekotasun handiak ditu SPKLn administrazio publikoetarako aurreikusten denarekin. Beraz, ez dago inondik inora esaterik zerbitzu-kontratuertarako muga 18.000tik 50.000ra igotzea arau-haustea denik, SPKLn erabateko askatasuna ematen delako muga horretaraino.

- II. 2. maila: 50.001 eta (a) 1.000.000 euro arteko balio zenbatetsia duten kontratuak, obretarako kontratuak direnean; edo (b) 100.000 euro artekoa, gainerako kontratuak direnean.

Kontratu horietarako, gutxienez hiru eskaintza eskatu behar direla adierazten duen prozedura negoziatua aurreikusten da KBJetan. Hain zuzen ere, honako hauxe



adierazten da KBJetan: *“gutxienez, kontratua garatzeko besteko gaitasuna duten hiru enpresari eskatuko zaie eskaintza”*.

Eskaintzen kopurua zehaztu behar duenean, AICk kontratuen konplexutasuna eta ezaugarriak hartzen ditu kontuan. Dena dela, KBJetan eskatutako hiru eskaintzak errespetatzen ditu gutxienez.

AICk SPKLko prozedurak derrigorrean ezarri behar ez baditu ere, nabarmendu beharra dago KBJetan maila honetako kontratueterako aurreikusten den prozedura (txostenean bertan kolokan jartzen diren kontratuak) prozedura negoziatuaren antzekoa dela.

- III. 3. maila: 2. mailakoek baino balio zenbatetsi handiagoa duten kontratuak, betiere, arauketa harmonizatupean ez badaude. Honako prozedura hauek ezarri ahal izango dira: irekia, mugatua, negoziatua edo elkarrizketa lehiakorra.

KBJetan aurreikusitako esleipen-prozeduren erabateko legezkotasunari buruzko zalantza guztiak argitu ondoren, erantsi beharra dago honako akats hau egiten dela txostenean: *“200.000 eurotik gorako nahiz milioi bat eurotik beherako obra-kontratuak eta 60.000 eurotik gorako nahiz 100.000 eurotik beherako gainerako kontratuak”* aipatzen dira, eta suposamendu horietan KBJetan *“hiru eskaintzaren eskaera”* aurreikusten dela adierazten da. Beraz, bertan azaldutakoaren arabera, ez dira legeriaren printzipioak errespetatzen.

Hona hemen akatsa: maila bakoitzerako zehaztutako esleipen-prozedurak nahasten dira publizitatearen betekizunekin, eta, horrez gain, prozedura negoziatua (2. mailarako zehaztu da KBJetan) parekatzen da hiru eskaintzaren eskaerarekin. Beraz, ez da sinplifikazioa egitean asmatzen, eta ez da errealitatea behar den moduan islatzen.

AICko KBJetan kontratueterako eskatzen den publizitateak zehatz-mehatz eta zorrotz betetzen du SPKL:

- I. Maila edozein dela ere, balio zenbatetsia 50.000 eurotik gorakoa denean (hau da, SPKLko 175. artikuluan zehaztutako muga), publizitatea egin beharko da.
- II. Gainera, salbuespenez, ez dago betekizun hori zertan beterik, obra-kontratuak 200.000 eurotik beherakoak direnean eta gainerako kontratuak 600.000 eurotik beherakoak direnean (SPKLko 161.2. artikuluan salbuespen hori aipatzen da administrazio publikoetarako).

Hori dela eta, KBJetan aurreikusitako publizitateak SPKL betetzen du zehatz-mehatz.

Era berean, 2. mailarako aurreikusitako prozedura negoziatuari dagokionez, zehaztu beharra dago KBJetan ez dela *“hiru eskaintzen eskaera”* aurreikusten, parte hartu nahi duten hiru enpresarentzako gutxieneko gonbita baizik. Beraz, prozedura hori erabiltzen dutenean, SPKLko 162. artikuluan administrazio publikoetarako xedatutako berbera da.

Aurreko guztia kontuan hartuta, esan gabe doa berrikusitako espedienteetan ezarritako prozedurek SPKLko printzipioak behar bezala errespetatu eta bermatzen dituztela. Beraz, ez da bidezkoa horretarako SPKLn administrazio publikoetarako aurreikusitako prozeduretara zehatz-mehatz jo behar dela baieztatzea.

AICren kontratu-jarduerak legezkotasuna errespetatzen du bete-betean: ezarritako prozedurek kontratazioen publizitatea, lizitatzailen arteko konkurrentzia eta



esleipendunak hautatzeko objektibotasuna bermatzen dituzte. Txostenean puntu honi buruz egindako kritikak inolako funtsik ez daukanez, alde batera utzi beharra dago.<sup>15</sup>

Txostenean aipatzen diren gainerako gaiak ez dira zuzenak. KBJak AICko kontratugilearen profilean daude argitaratuta. Jarraibide horiek zein diren ikusteko, honako hauxe egin beharra dago: erregistratzea, erabiltzaileaz zein pasahitzaz sartzea eta behean “jarraibideak” jarrita duen estekan klik egitea.

Modu berean, AICk ezarritako sistema informatikoari esker, badago argitaratutako guztia trazatzerik, baina ez dago jende guztiarentzat zabalik. Backofficean sartu beharra dago, baina AICko langile baimendunek baino ez dute bertan sartzerik.<sup>16</sup>

9. Aztertu diren kontratuetatik 2ren esleipen irizpideak, 6,4 milioi euroan esleitutakoak, enpresen kaudimenarekin loturiko alderdiak balioztatzen dituzte (giza eta gauzazko baliabideak, kalitatea ziurtatzeko plana eta prestakuntzaren antolamendua eta plana), SPKLren 53.2, 131.2 eta 134 artikuluetan ezarritakoaren aurka. Horrezaz gain, prezio eta epe irizpideak ez dira proportzionalak (5 eta 27. espedienteak).

5. eta 27. espedienteak. Txostenean bertan, honako hauxe balioespen-irizpide moduan erabili izana gaitzesten da: baliabide materialak, giza baliabideak, kalitatea bermatzeko plana, antolaera eta prestakuntza-plana. Interpretazio hori, ordea, ez dator bat jurisprudentziak eta aholku-organoez ezarritako doktrinarekin.

SPKLko 134. artikuluan, esleipenerako irizpideak arautzen ziren, esleipenerako irizpideek nolako betekizunak bete behar zituzten zehazteko asmoz. Agindu hori, hain zuzen ere, Europar Batasunak arlo horretan egindako arautegiaren ondorioz sortu da. Izan ere, Europako Parlamentuak eta Kontseiluak 2004ko martxoaren 31n obren, hornikuntzen eta zerbitzuen kontratu publikoak esleitzeko prozeduren koordinazioari buruz emandako 2004/18/EE Zuzentarauan dago adierazita (“2004/18 Zuzentaraua”). Honako hauxe xedatzen da 2004\18 Zuzentarako 46. kontuan hartuzkoan:

*“[...] esleipen-botereek kontratua eskaintza ekonomiko abantailatsuenaren arabera esleitzea erabakitzen dutenean, kalitate/prezio erlazio onena eurretako zeinek eskaintzen duen zehazteko asmoz ebaluatu beharko dituzte eskaintzak. Horretarako, behar besteko irizpide ekonomikoak eta kualitatiboak zehaztu beharko dituzte, esleipen-boterearentzat eskaintza ekonomiko abantailatsuena zein den erabaki ahal izateko. Irizpide horiek kontratuaren helburuaren arabera zehaztuko direnez, eskaintza bakoitzak kontratuaren helburuari begira nolako errendimendua duen ebaluatu ahal izango da, zehaztaperen teknikoetan azaltzen*

<sup>15</sup> Kontratu txikia eta kopuruagatik prozedura negoziatua analogiaz baliatzea ezin da onartu horren bidez botere esleitzzaileek kontratazioko nahitaezko printzipioak saihesten badituzte (lehiaketa 50.000 euroren azpitiko kontratuetan eta publikotasuna 50.000 eurotik gorako kontratuetan).

<sup>16</sup> Ez dago erasota informatika sistemak informazioaren hedapen publikoa zein unetan hasten den modu frogagarrian egiaztatzen uzten duenik.





Herri-Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

*den bezala. Era berean, eskaintza bakoitzaren kalitate/prezio erlazioa nolakoa den ere ebaluatu ahal izango da.”*

Bestetik, honako hauxe zehazten da 53. artikuluan:

*“[...] zenbait zerbitzurenkatiko ordainsariari buruzko legeko, arauzko edo administrazioko xedapen nazionaleri inolako kalterik egin gabe, esleipen-botereek honako irizpide hauek hartuko dituzte kontuan kontratu publikoak esleitzeko orduan:*

- a) Esleipen-boterearen ikuspegitik, kontratua eskaintza ekonomiko abantailatsuenari esleitzen zaionean, kasuan kasuko kontratu publikoaren helburuarekin lotutako zenbait irizpide; esate baterako, kalitatea, prezioa, balio teknikoa, ezaugarri estetiko eta funtzionalak, ingurumen-ezaugarriak, funtzionamenduaren kostua, errentagarritasuna, saldu osteko zerbitzua, laguntza teknikoa, amaiera-data eta entregatzeko edo betearazteko epea.
- b) Bestela, prezio merkeena besterik ez.”

Zuzentarauan, ez dira erabili beharreko esleipen-irizpideak zehatz-mehatz zerrendatzen, zenbait baino ez baitira adibide moduan aipatzen. Beraz, beste batzuk daudela onartzen da. Hala ere, ezinbestekoa da irizpideek kontratuaren helburuarekin zerikusia edukitzea.

Modu koherentean, SPKLko 134. artikuluan xedatzen da esleipenerako irizpideak zehazten direnean hiru eskakizun baino ez direla kontuan hartu behar:

- I. Objektiboak eta kontratuaren helburuarekin lotutakoak izatea.
- II. Orrietan azaltzea.
- III. Beheranzko garrantzi-hurrenkeraren arabera zerrendatzea.

Horixe bera adierazten du Estatuko Kontratazio Administratiborako Aholku Batzordeak (“KAAB”) urriaren 24ko 28/1995 Txostenean, besteak beste:

*“Lehiaketen esleipenerako oinarri moduan erabili beharreko irizpideei dagokienez, Herri Administrazioen Kontratuari buruzko Legeko 87. artikuluan bete beharreko hiru eskakizun baino ez dira agertzen: irizpideak objektiboak izatea; klausula administratibo partikularren orrietan azaltzea; eta beheranzko garrantzi-hurrenkeraren zein kasuan kasuko haztapenaren arabera zerrendatzea. 87. artikuluan bertan, zenbait irizpide aipatzen dira, eta, euren artean, prezioa agertzen da. Gainera, irizpide horien aurrean “esate baterako” esamoldea agertzen da, “antzeko beste batzuk” ere badaudela adierazi nahian. Beraz, egiaztatu egiten da ez direla zehatz-mehatz zerrendatzen (beste irizpide objektibo batzuk egon daitezke) eta ez direla aipatutako guztiak lehiaketa jakin batean ezinbestean ezarri behar. Hori dela eta, lehenengo eta behin, argi eta garbi dago kontratazio-organoak ondasun eta zerbitzu informatikoetarako kontratuak lehiaketa bidez esleitzeko klausula administratibo partikularren orrietan prezioa adieraztea ez dela ezinbestekoa erabaki dezakeela.”*

Ildo beretik, jurisprudentziak eta KAABk berretsi egin dute lizitatzailiek kontratuaren betearazpenerako erabiliko dituzten baliabide pertsonal eta materialak esleipen-irizpidetzat hartu ahal izango direla. Beraz, agerikoa da ez dela enpresaren irizpide subjektiboa (horregatik, kaudimena eta gaitasuna egiaztatze baliabideen artean hartu



beharko litzateke kontuan), kontratuaren helburuarekin zuzenean lotutako irizpide objektiboa baizik. Horren ondorioz, proposamen abantailatsuena zein den zehazteko eta kalitate/prezio erlazioa ebaluatzeko erabilitako elementua da.

Txostenean aipatzen diren lizitazioetako orrietan, ez da enpresek lizitaziopeko kontratuak betearazteko daukaten gaitasun generikoa balioesten, honako hauxe baizik: lizitzaileek lizitazioaren helburu zehatzerako erabiliko dituzten baliabide pertsonal zein materialen kalitatea, kalitatea bermatzeko plana, antolaera eta prestakuntza-plana.

Beraz, kontratistaren elementu ez-subjektiboez ari gara, zeharo objektiboak direlako eta kontratuaren helburuarekin lotuta daudelako.

Alde horretatik, Auzitegi Gorenak 2005eko uztailaren 5ean emandako epaia aztertuko dugu eskuragarri dagoen jurisprudentzia-errepertorio ugaritik, Europar Batasuneko Justizia Auzitegiak (EJJA) kontratuak esleitzeko irizpideei buruz eman duen jurisprudentzia laburtzen delako bertan:

*“[...] Justizia Auzitegiak arautegi hori (eta zuzentarau berrian txertatutako aurretiazkoa) nola interpretatu duen kontuan hartuta, ez dago inolako arrazoirik hautaketa-irizpideen artean kontratisten inguruabar pertsonalak aintzat ez edukitzeko (ez dira objektibotasunetik aldentzen, orokorrak direlako). Gainera, agindua interpretatzen duen jurisprudentziari dagokionez, nabarmendu behar dugu Europako Erkidegoetako Justizia Auzitegiak (EEJA) 1988ko irailaren 20an emandako epai garrantzitsuan (Gevroedrs Beentjes) onartu zela “zerbitzuaren ezaugarriak” oso kontuan hartu zitezkeela kontratista hautatzeko orduan (erabaki horretan bertan ere, esperientzia bera onartu zen hautaketarako irizpide moduan). Bestetik, EEJAK 1999ko irailaren 16an emandako epaian ere (Austriak epaitu aurretik azaldutako arazoa), onartu egiten da kontratistaren baldintza bereizgarriak balioetsi daitezkeela eta esleipenerako prozedura bera ere eman gabe geratu daitezkeela, inguruabar horien arabera aurkeztutako eskaintza bakarra gaitzetsi beharra dagoenean. Nolanahi ere, Justizia Auzitegiaren doktrina ahobatezkoa da kontratisten era guztietako bereizkeria alde batera uztean, eta horixe bera xedatzen da aipatutako epaian, printzipio horren aurkakotzat jotzen delako “lurralde nazionalako zenbait eskualdetan finkatutako enpresak” lehenestea, “kontratu publikoen ehunekoa” eurentzat gordetzen denean.”*

Bestetik, KAABren honako txosten hauek ere argigarriak dira:

- I. 2002ko urtarrilaren 9ko 36/2001. Bertan baieztatzen denez, *“inolako zalantzarik gabe, ulertzeko modukoa da zenbait zentro kudeatzailek enpresak kontratu zehatzerako erabiliko dituen baliabide pertsonalak eta materialak balioetsi nahi izatea. Halaber, nabarmendu beharra dago sailkapenetik kanpo eta aparte egin dela aldaketa, kaudimena egiaztatzeke sistema arautzen duela eta ez kontratua esleitzeko irizpidea eta, dena dela, eskakizun hori berariaz aipatu beharra dagoela klausula administratibo partikularren orrietan.”*
- II. Azaroaren 12ko 59/2004. Bertan, gaitasun zein kaudimen arloko betekizuntzat hartutakoaren artean elementu pertsonal eta materialen kopuru handiena esleipenerako irizpide moduan erabiltzeko kasu partikularra aztertzen da. Era



Herri -Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

berean, Auzitegi Gorenak lehen aztertutako epaian ere aipatzen duen EEJAren Gevroedrs Beentjes epai garrantzitsuaren laburpena ere egiten da bertan. Izan ere, argi eta garbi adierazten da irizpidea orrian bertan berariaz aipatzea dela horretarako betekizun bakarra: *“Europako Erkidegoetako Justizia Auzitegiak 1988ko irailaren 20an emandako epaian (C 31/87 Beentjes gaia), 2004/18/EEEn aurretiko zuzentarauetakoak bezalako edo antzeko aginduak interpretatzen dira. Halaber, azpimarratu behar da kontratisten gaitasuna egiaztatzeko eta kontratua esleitzeko faseak eragiketa desberdinak direla eta arau desberdinen arabera ere arautzen direla. Gero, gainera, kontratua esleitzeko irizpideei dagokienez, nabarmentzen da esleipena eskaintza ekonomiko abantailatsuenan oinarritzen denean, esleipen-botereek eskaintza hori antzemateko irizpideak baino ezin izango dituztela aukeratu. Horrez gain, zuzentarauarekin bateraezina izango da (71/305/EEE Zuzentarauaz ari da) lizitatzailerak kanpoan uztea bere eskaintza ez dela hain onargarria dirudielako, “betiere, horren ondorioz esleipen-botereei baldintzarik gabeko hautaketa-askatasuna ematen bazaie”. “Aitzitik, horrelako xedapena ez da zuzentarauarekin bateraezina izango (71/305/EEE Zuzentarau bera), esleipen-botereei apreziatio-eskumena ematen diela interpretatu behar bada, aurreztutako eskaintzak erkatu ditzaten, eta zuzentarauko 29. artikuluko 2. paragrafoan adibide moduan zerrendatutakoan antzeko irizpide objektiboen arabera eskaintza abantailatsuena onartu dezaten.”*

Beentjes epaiaren doktrina zenbait ñabarduraz berregin da ondoren, 2000ko irailaren 26ko epaian (C-225/98 gaia), 2001eko urriaren 18ko epaian (C 19/00 gaia), 2002ko irailaren 17ko epaian (C 513/99 gaia) eta 2003ko ekainaren 19ko epaian (C-315/01 gaia), eta honelaxe laburbildu daiteke:

- a) Lizitatzaileraren gaitasunaren egiaztatpena eta kontratuen esleipena bi fase desberdin dira, eta arau desberdinen arabera ere arautzen dira. Izan ere, zuzentarauetan hautaketa kualitatiborako zerrendatutako irizpide bat edo batzuk erabili beharko dira lehenengoan; eta irizpide objektiboak, bigarrenean, zuzentarauetan ez direlako irizpide horiek zehatz-mehatz aipatzen, betiere, esleipen-botereei baldintzarik gabeko hautaketa-askatasuna ematen ez bazaie.
- b) Lizitatzaileraren arteko bereizkeriarik gertatu ez dadin, esleipenerako irizpideak alde aurretik argitaratu beharko dira orrietan edo iragarkietan.

Beraz, kontsultatutako gaia (gaitasun zein kaudimen arloko betekizuntzat hartutakoan artean elementu pertsonal eta materialen kopuru handiena esleipenerako irizpide moduan erabiltzea) ez da Europar Batasuneko zuzentarauen aurkakoa, ezta Europako Erkidegoetako Justizia Auzitegiak 1988ko irailaren 20ko epaian (C-31/87 Beentjes gaia), batez ere, horri buruz egindako interpretazioaren kontrakoa ere.



- III. Administrazio publikoen kontratuei buruzko legeriaren ikuspegitik, ondorio bera atera beharra dago, Herri Administrazioen Kontratuei buruzko Legean Europar Batasuneko zuzentaruetakoa bezalako edo oso antzeko aginduak azaltzen direlako.

Obretarakoak eta hornikuntzetarakoak ez beste kontratu batzuetako kaudimen tekniko eta profesionalari buruzko 19. artikuluko e) idatz-zatian xedatutakoaren arabera (nahiz eta 17. eta 18. artikulua aztertzean ondorio berberak aterako liratekeen), kaudimen teknikoa edo profesionala egiaztatzeko baliabideetakoa izango litzateke *“enpresariak kontratua gauzatzeko dauzkan materialaren, instalazioen eta ekipo teknikoaren adierazpena egitea”*. 86.1. artikuluan, ordea, honako hauxe xedatzen da: *“lehiaketako klausula administratibo partikularren orrietan zehaztuko da zer irizpide objektibo erabiliko diren esleipena egiteko orduan; esate baterako, prezioa, prezioaren berrikuspenerako formula (hala badagokio), betearazteko edo entregatzeko epea, erabileragatiko kostua, kalitatea, errentagarritasuna, balio teknikoa, ezaugarri estetikoak edo funtzionalak, ordezekoak lortzeko aukera, artapena, laguntza teknikoa, saldu osteko zerbitzua edo antzeko beste batzuk. Ondoren, kontratazio-organoak irizpide horien guztien arabera hartuko du erabakia.”*

Beraz, Espainiako legeria aztertuz gero, argi eta garbi dago elementu pertsonal eta materialak kaudimen teknikoa edo profesionala zehazteko irizpide moduan erabili daitezkeela eta eskatutakoen kopuru handiena esleipenerako irizpide moduan erabili daitezkeela. Izan ere, 86. artikuluan ez dira irizpide horiek zehatz-mehatz zerrendatzen, eta irizpide objektiboa da. Beraz, bereizkeriarako ustezko ondoriorik eragiten badu, erabat desagertuko da, Herri Administrazioen Kontratuei buruzko Legeko 86. artikuluan eskatutakoaren arabera irizpidea bera orrian bertan berariaz aipatzen bada.

Gainerakoan, batzorde honen zenbait eta hainbat txostenetan gure aztergaia zuzenean jorratzen ez bada ere, proposatutako irtenbidearen oinarritzat jo daitezkeen adierazpenak eta argudioak agertzen dira: 1994ko abenduaren 16koa; 1995eko urriaren 24koa; 1998ko martxoaren 2koa, ekainaren 30koa eta abenduaren 16koa; eta 2002ko urtarrilaren 9ko bi (22/94, 28/95, 53/97, 13/98, 44/98, 33/99, 36/01 eta 37/01 espedienteak)”.

Hori guztiori dela eta, argi eta garbi dago kasuan kasuko kontratuaren betearazpenean erabiliko diren baliabide pertsonal eta materialak, kalitatea bermatzeko plana, antolaera eta prestakuntza-plana balioesteko asmoz orrietan zehazten diren irizpideak irizpide objektiboak direla eta ez direla bereizkeriazkoak. Horrela, bada, inolako arazorik gabe erabili daitezke esleipenerako irizpide moduan.



Herri -Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

Azaldutako arrazoi guztiengatik, aipatutako lizitazioetan erabilitako irizpideak ez direla egokiak adieraztea interpretazio desagokoa da benetan, behar besteko errespetuaz esanda; edo zorrotzegia, behintzat.<sup>17</sup>

Epeari eta prezioari buruzko irizpideen proportzionaltasun-faltari dagokionez, gauza bera gertatzen da. HKEEK bere interpretazioa inposatu nahi du legean bertan hitzez hitz xedatutakoaren aldean, eta, horretarako, bere gustukoa ez dena gaitzesten du behin eta berriro.

Lehen esan dugunez, SPKLko 134. artikuluan xedatzen da esleipenerako irizpideak zehazten direnean hiru eskakizun baino ez direla kontuan hartu behar: (i) objektiboak eta kontratuaren helburuarekin lotutakoak izatea; (ii) orrietan azaltzea; eta (iii) beheranzko garrantzi-hurrenkeraren arabera zerrendatzea.

SPKLn ez da ezer esaten irizpide batzuek beste batzuekin izan behar duten proportzionaltasunari buruz, azken helburua den “eskaintza abantailatsuenaren zehaztapena” ezin izango delako inolaz ere magnitudeen arteko ustezko erlazioaren edo arrazoiaren eraginpean egon. SPKLn, prezioaren eta epearen irizpideen arteko proportzio matematikoa ezarri nahi izan bazen, egin egingo zen, beste betebeharrak batzuetan gertatu den bezala; esate baterako, bermeen zenbatekoaren zehaztapena, zerbitzu osagarriak...

Bestetik, prezioaren garrantzia erlatiboa da epeari eta gainerako irizpideei dagokienez. Hasierako prezioa behar beste doitu eta zehaztuta dagoenean, ez da zentzuzkoa ondoren zerbitzugintza murriztu dezakeen faktorea balioestea.

Legezko esparrua zehaztu ostean, argi eta garbi dago prezioa eta epea irizpide objektiboak direla, kontratuaren helburuarekin lotuta daudela eta SPKLn adierazitako betekizunak betetzen dituztela. Hori dela eta, irizpide egokiak dira, “eskaintza abantailatsuenaren zehazteko” orduan.

10. 350.000 euroan esleitutako espediente batean ez da justifikatzen esleipen hartzailea zerga eta gizarte segurantzako obligazioetan eguneratuta zegoenik, SPKLren 135.4 artikulua agintzen duena urratuz (27. espediente).

27. espediente. AICk bideratutako espediente guztietan, lehendabizi sailkatutako lizitatuak AICri aurkeztu zizkieten zerga-arloko eta Gizarte Segurantzako betebeharrak egunean dituztela adierazten duten egiaztagiriak, kontratua behin betiko sinatu baino lehen eta esleipena irrimo egiteko betekizun moduan.

Horrela, bada, SPKLko 135. artikuluan xedatutakoa bete zen denborazko arrazoiengatik espediente bakoitzean ezarri beharreko bertsio desberdinetan.

AICk egiaztatu egin zuen esleipendunek zerga-arloko eta Gizarte Segurantzako betebeharrak betetzen zituztela.

<sup>17</sup> Aztertutako pleguek ez zuten aurreikusten kontratua egikaritzeko pertsona eta/edo gauzako elementu kopuru handiagoa eskura jarriko zenik, kaudimenaren baldintza modura finkatu zirenekiko.



Dena dela, baliteke lizitzaileek bere egunean aurkeztutako agiriak gordeta ez edukitzea, honako honexen ondorioz: (i) prozedura aspaldi bideratu zen, eta (ii) aipatutako kontratua amaituta zegoen espediente berrikusten hastean. Hori dela eta, kontratistek euren itzuliko zitzaizkien aurkeztu zituzten agirien zati bat.

Gehien jota, unean uneko gorabehera gertatuko zen agiriak artxibatzeko eta gordetzeko orduan. Dena dela, ez dago esaterik horren ondorioz SPKLko 135.4. artikuluan xedatutakoa urratu denik, esleipena egin baino lehen zerga-arloko eta Gizarte Segurantzako betebeharrak egunean zituztela adierazten zuten egiaztagiriak aurkeztu zizkiotelako AICri, agindu horretan eskatzen den bezala.

11. 350.000 euroren zenbatekoan esleitutako espediente batean ez dago esleipendunak behin-betiko bermea aurkeztu duela egiaztatuko duen agiririk. Bermea eratzea SPKLren 83. artikulua arautzen du (27. espediente).

*27. espediente.* Ez dago esaterik kontratuan behin betiko bermea eratu ez zenik. SPKLko 135.2. artikuluan xedatutakoa kontuan hartuta eta kontratua behin betiko esleitu baino lehen, lehendabizi sailkatutako lizitzaileak AICri aurkeztu zizkion orrietan eskatutako behin betiko bermea eratu zuela adierazten zuten egiaztagiriak.

Kontratuko 9. klausulan egiaztatzen da behin betiko bermea eratu zela, bertan honako hauex adierazten baitute bi alderdiek:

*“Produktua epearen barruan eta behar bezala entregatuko duela eta kontratuko gainerako betebeharrak beteko dituela bermatzeko asmoz, kontratistak abal solidarioa aurkezten dio jabetzari, eta berariaz uko egiten dio ordena, zatiketa zein eskusio arloko onurari, baita lehen errekerimenduan ordaintzeko onurari ere.”*

Kontratazioaren helburu zen hornikuntza amaitutakoan eta produktuaren berme-epea igarotakoan, AICk kontratistari itzuli zion abala, SPKLko 90. artikuluan eta kontratuko 9. klausulan eskatzen zen bezala. Horren arabera, hain zuzen ere, *“produktuaren berme-epea igarotakoan itzuli”* behar zen abala.

Hori dela eta, bermea ez dago espedientean gordeta. Nolanahi ere, abala esleipendunari itzuli zitzaizkion baiezkatzen duen agiria kopia erantsen da (erantsitako 14. agiria ikusi).

Beraz, ez dago inolako akatsik: bermea eratu egin zen, eta SPKLn nahiz lehiaketako orrietan zehaztutako baldintzetan itzuli zitzaion kontratistari, hornikuntza amaitu zenean eta produktuaren bermeari epea igaro zenean.

12. Fundazioak kontratazio mahaiak eta balorazio atalak eratzea aukerakoa da. Alabaina, erregulazio harmonizatuari lotutako kontratuetan balorazio organo bat osatzea gomendatzen da, aurkeztutako dokumentazioa kalifikatu, eskaintzak baloratu eta kontratazio atalari esleipen proposamen bat aurkezteko ardura hartuko duena; horren osaera, ahal den heinean eta beharrezko gerta daitezkeen egokitzapenekin, SPKLren 295.3 artikulua xedatzen duenaren arabera izango da.



Txostenean ondo baino hobeto adierazten denez, AIC Fundazioak ez dauka kontratazio-mahaia zertan eratu. Dena dela, ezin da oro har eta modu abstraktuan baieztatu jardunbide hori egokia ala desegokia den. Izan ere, mahai hori eratu nahi izanez gero, burokrazia administratiboari aurre egin behar zaionez eta prozesuak moteldu egiten direnez, ez du beti berme handiagorik eskaintzen. Edonola ere, argi eta garbi dago baliabide pertsonal eta ekonomiko handiagoak erabili behar direla horretarako.

AICren kasu zehatzean, mahaia eratu behar zen ala ez aztertu zen, eta, hain zuzen ere, lehiaketetako batean garatu da prozesu hori. Hala ere, emaitza ez da nahi bezalakoa izan. AICk langile gutxi ditu bertan garatzen diren zeregin guztietarako, eta, mahaia eratu nahi izanez gero, jarduera geldiarazi beharra zegoen, eta arazo ugari sortzen ziren kideen agendetan. Hori dela eta, azkenean, mahaia behar bezala eratzeko ezinbestekoa zen gutxienekoari eskuordetzen zizkieten euren eginkizunak: 2 lagun, hau da, mahairik ez zegoeneko eginkizunak betetzen zituzten berberak.

### 3.4 BESTE GAI BATZUEN INGURUKO ALEGAZIOAK

13. ACICAErekin zerbitzuak alokatzeko kontratua aztertzean ez zaigu hasierako kontratuaren zenbatekoa zehazten duen dokumentazio euskarria eskuratu, ez eta horren luzapenarena, ez bertan jasotzen diren zerbitzuen kostuaren xehapena ere. ACICAEk hileroko ohi duen fakturazioan ere ez dira emandako zerbitzuak eta horien kostuak xehatzen. Kontratu honen bidez gutzira fakturaturutako zenbatekoa horren indarraldian zehar eta 2011ko abenduaren 31ra arte, 3,2 milioi eurorena izan da (ikus A.10).

Era berean, Fundazioak kontratatutako eta ordaindutako beste gastu batzuk ere erregistratu dira, eta, kudeaketa ACICAEren esku uzteko kontratuaren helburuan adierazitako zerbitzuetakoak direla esan daitekeenez, azken horrek hartu beharko zituen bere gain (aholkularitza teknikoa, adimen-zerbitzuak, plan estrategikoa eta kontabilitateko aholkularitza).

Txosteneko 10. eranskinean adierazten denez, zerbitzuak alokatzeko kontratuko I. eranskinean azaltzen da zein den ACICAEk AICri emandako zerbitzuen irismena. Ez da ordu-zenbatespenik egiten, eta ez da unitatekako preziorik hitzartzen, urteko prezioa modu jaso eta itxian zehazten delako oso-osorik eskuordetutako zerbitzu guztiengatik.

Dena dela, badago zerbitzu horiek ematen dituen hirugarrenik, kontratuaren irismenetik kanpo geratzen direlako; esate baterako, aholkularitza teknikoa, adimen-zerbitzuak, plan estrategikoa edo kontabilitateko aholkularitza. I. eranskinean adierazten den bezala, funtsean AICren diseinua, egituraketa zein kudeaketa eta goi-zuzendaritzako eginkizunak kontuan hartzen dira kontratuan. Beraz, honako hauexek edozein erakunderen ohiko jardueratik haratago doazen zerbitzu espezializatuak direnez, modu berezian azpikontratatu behar dira: aholkularitza teknikoa, adimen-zerbitzuak, plan estrategikoa, kontabilitateko aholkularitza, segurtasuna, artapena, garbiketa, lorezaintza, cateringa...

Beraz, inolako akatsik antzematerik ez dagoenez, behin betiko txostenetik kendu beharko litzateke atal hau.



Herri-Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

14. 203.181 euroren zenbatekoa abenduaren 29ko 3/2004 Legea aldarazten duen uztailaren 5eko 15/2010 Legearen bigarren xedapen iragankorrak adierazitako epeen ondoren ordaindu da; lege honek merkataritzako eragiketetan berankortasunaren aurkako neurriak ezartzen ditu. Berandututako ordainketen batez besteko epe haztatua 39 egunekoa izan da..

Txostenean bertan HKEEk abenduaren 29ko 3/2004 Legea aldatzen duen uztailaren 5eko 15/2010 Legean (bertan, hain zuzen ere, merkataritzako eragiketetako berankortasunari aurre egiteko neurriak ezartzen dira) zehaztutako ordainketa-epeen ezarpenari buruz aurpegiratutakoak ez dauka inolako oinarririk, ez legezketasun hertsuari begira, ez justiziarri eta berdintasunari begira.

Hain zuzen ere, abenduaren 29ko 3/2004 Legea aldatzen duen uztailaren 5eko 15/2010 Legean administrazioetarako zehaztutako epeak AICn ezartzeko modukoak izan litezkeela kontuan hartuta ere (ondoren ikusiko dugunez, ez dira, ordea), zentzugabea da eta lekuz kanpo dago HKEEk AIC bera gaitzestea, bere ordainketen zati ezin txikiagoan atzerapen txikia izan duelako (izan ere, fiskalizatutako epealdian egindako ordainketen % lekoa ere ez da izan).

Oso kontuan hartu beharra dago 2011n euren hornitzaileei ordaindu dieten administrazioen (esan gabe doa ez direla guztiak izan) batez besteko atzerapenak ia-ia 100 egunetan gainditu duela legezko epea (eta oso urrun dago AICri leporatzen dizkioten 39 egunetatik). Hori dela eta, Europar Batasuneko bazkide berankorrena izateko ohore zalantzarria du Espainiak, Greziaren ostean. Gainerakoek ez dute ordaintzen, edo *in extremis* heldu behar izan diete Estatuak egoerari aurre egiteko ezarri behar izan dituen ezohiko neurriei; esate baterako, ezohiko kreditu-lerroak, 4/2012 Errege Lege Dekretua...

Berankortasun instituzionalaren egoera ikaragarri honetan, bete-betean asmatuko zuen, berdintasunari eta justiziarri begira, behintzat, AICren ordainketa-politika goretsi bazuen, horrelaxe kritikatu beharrean. Izan ere, hobetu egin badaiteke ere, erkatuz gero, bikaina dela baino ez dago esaterik. AICk bere hornitzaileei ordaindu die, eta, ia-ia gehienetan, uztailaren 5eko 15/2010 Legean xedatutakoa bete du zehatz-mehatz.

Nolanahi ere, aurrean adierazitako guztia adierazita ere, txostenean bertan azaltzen da desbideraketaren %1 horretarako ez direla legean aurreikusitako epeak bete. Hala ere, txostenean bertan ez da zehazten zer harremanetan edo fakturretan gainditu omen diren epe horiek. Hori dela eta, AICk ezin du salbuespen hori sakon aztertu. Hori horrela izanda ere, oso egokia da bi xehetasun hauek ematea:

- I. Lehenengo eta behin, abenduaren 29ko 3/2004 Legea aldatzen duen uztailaren 5eko 15/2010 Legean zehaztutako ordainketa-epeak ezin dira fiskalizatutako epealdi osoan ezarri. 2006tik 2011ra doazen ekitaldiak fiskalizatu direnez eta uztailaren 5eko 15/2010 Legea 2010eko uztailaren 7an indarrean sartu zenez, agerikoa da HKEEk ezin litzakeela uztailaren 5eko 15/2010 Legeko eskakizunak atzeraeraginez ezarri 2008an, 2009an eta 2010eko zati batean egindako ordainketetan.
- II. Bigarrenez, sinatutako kontratuen babespean, AICk ordainketei eusteko/konpentsatzeko zenbait eskumen ditu, xedatutakoa betetzen ez denean





Herri -Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

edo behar bezala betetzen ez denean. Izan ere, baliteke atzerapen batzuk horrelako egoeren ondorioz sortu izana.



#### **4. TXOSTENeko VI. ATALAREN INGURUKO ALEGAZIOAK: FUNDAZIOA ERAIKITZEKO ETA HORNITZEKO PROZESUAREN LEGEZKOTASUNAREN AZTERKETA**

##### **4.1 LEGEZKOTASUNAREN BETEARAZPENARI BURUZKO IRITZIAREN INGURUKO ALEGAZIOAK**

1. Aztertu ditugun espedienteetatik 13tan, 6,5 milioi euroren esleipen zenbatekoarekin, premia arrazoiengatik bizkortutako prozedura mugatua baliatu da, espedienteen justifikatu ez delarik baliatutako prozedura behar atzeraezin bat edo guztien intereseko arrazoi bat artatzeko izan denik (11, 12, 13, 14, 15, 16, 17, 18, 19, 20, 21, 22 eta 23 espedienteak).

Aurrean aipatutako 13 espedienteak kontuan hartuta, euretako batean ere ez da agertzen kontratazio-organoak premiari buruz behar bezala arrazoituta egindako adierazpena, nahiz eta SPKLko 96.1. artikuluan halaxe eskatzen den.

Aldez aurretik, argitu beharra dago premiazko izapidea SPKLn aurreikusitako mekanismoa dela eta prozedura mugatuan erabili daitekeela, premia atzeraezinagatik edo interes publikoagatik halaxe egin behar denean, betiere, kontratazio publikoa arautzen duten printzipioak errespetatzen badira, hau da, publizitatea, konkurrentzia eta berdintasuna.

Txostenean bertan, betekizun formala kritikatzeko da (nahiz eta AICri halakorik eskatu ezin zaion, aurrerago ikusiko dugun bezala) eta ez kontrataziorako printzipioen betearazpena (eta horiek bete-betean errespetatu dira). Izan ere, premia atzeraezinik zegoen ala ez ere ez du aztertzen, eta premia hori justifikatzen duen agiririk ez dela aurkeztu nabarmentzen du.

Dimentsio substantiboan, badirudi txostenean ez direla AIC proiektuko inguruabar bereziak kontuan hartu. Horren arabera, espediente horiek premiaz bideratu behar izan ziren, proiektuaren helburuak bete egingo zirela bermatu ahal izateko:

- AIC proiektua azkar abian jartzea. 24 hilabetetan, gutxi gorabehera (Fundazioko Estatutuen sinadura, 2006ko urrian; lehenengo harria, 2007ko urtarrilean; 1. fasearen irekiera, 2009ko urtarrilean; eta aldi berean eraiki eta 2010eko apirillean irekitako 2. fasea), ideia hori honako ezaugarriak zituen errealitate bihurtu zen: 34 mila m<sup>2</sup>, inplikaturako 22 erakunde, 400 langile, teknologia aurreratuen multzoa, lau jarduera nagusi...
- Azpiegiturak eta ekipamenduak konplexuak izatea eta irismen desberdineko 150 esleipen baino gehiago edukitzea. Gainera, euretako asko eta asko nazioartekoak ere baziren.
- Ekipamendua bakarra izatea. Beraz, zehaztapen-lan handia egin behar izan zen alde aurretik, eta, batez beste, hornitzaileak 12 hileko epea behar izan zuen dena ekoizteko eta prest edukitzeko. Hori dela eta, erronka handia izan zen berez.
- Horrez gain, krisia bera 2008an hastea. Euskadiko automobilgintzaren sektorean eragindako ondorioei aurre egiteko asmoz, AIC abian jartzeko prozesua azkartzea erabaki zen.



Aurreko inguruabar objektibo guztien ondorioz, AICk aipatutako lehiaketak premiazko prozedurako epe mugatueta bideratzea premia atzerazina zela erabaki zen 2008. urtearen amaieran. Izan ere, horixe bera baino ez zegoen egiterik, 2009ko urtarrilerako zentroa abian egon zedin eta AICrekin kontratua sinatu zuten maizterrei eta AICko ustezko beste bezero batzuei zerbitzua emateko gaitasunak prest eduki zitzaizkien.

Azken batean, aipatutako hornikuntza-kontratuak premia objektiboko egoeraren ondorioz egin zirenez, erabat justifikatu zegoen legearen arabera aurreikusitako premiazko izapideetara jotzea.

Horrez gain, eskaintzak aurkezteko emandako epeak behar bestekoak izan ziren, berdintasuna nahiz konkurrentzia bermatu ahal izateko (30 egun). Hori dela eta, ikuspegi substantibotik, funsgabea da txostenean bertan horixe aurpegiratzea.

Bestetik, lehen aurreratu dugunez, txostenean bete-betean erratzen dira espedienteen *“kontratazio-organoak premiari buruz egindako (...) eta 96.1. artikuluan eskatutako adierazpena”* ez dagoela kritikatzeko dutenean, AICk bezala administrazio publikoak ez diren erakundeek ez dutelako betebeharrak formal hori zertan bete.

Hain zuzen ere, *“espedienteen kontratazio-organoak premiari buruz behar bezala arrazoituta egindako adierazpena agertu behar dela”* xedatzen da SPKLko 96.1. artikuluan, eta legeko II. liburuko (Kontratuen prestaketa) I. tituluko (Administrazio publikoek kontratuak prestatzeko prozesua) I. kapituluaren barruan (*“Arau orokorrak”*) dago kokatuta. Premiari buruzko adierazpena AICri eskatu ezin zaion betekizun formal da, beraz.

Azaldutako guztia kontuan hartuta, ageri-agerikoa da puntu honetan aurpegiratutakoa kendu behar dela txostenetik.<sup>18</sup>

2. Guztira 240.115 euroan esleitutako espediente batean ez da lizitazioa DOUEn argitaratu, APKLTBren 2 eta 78 artikulua urratuz (7. espediente).

Unean-unean deialdia EBAOn argitaratu ez bada ere, txostenean ez da aipatzen lizitazioari buruzko iragarkia AICko kontratugilearen profilean eta BOEn argitaratu zela. Lizitazioa komunikabide horietan argitaratzea nahikoa izan da ahalik eta konkurrentzia handiena bermatzeko. Horren adierazgarri, era guztietako jatorri geografikoetako enpresa askok parte hartu dute lehiaketan, tokian tokiko edo autonomia-arloko enpresek ez ezik, multionazionalak ere esku hartu dutelako bertan.

Beraz, ez dago inolaz ere esaterik 7. espedienteen unean-unean ez argitaratzea konkurrentziaren kalterako izan denik. Hori dela eta, garrantzirik gabeko hutsegite formal dela baino ez dago adierazterik.

<sup>18</sup> SARA kontratueta botere esleitzaleen kasuan, SPKLren 121.1 artikulua agintzen du kontratazio atalak presako izendatu behar duela eta prestalanen agiritan horren arrazoia jasotzea ezinbestekoa dela, kontratazioaren printzipioak saihestea gaitzen duten inguruabarrak egiaztatzearen.



3. Prozedura mugatu bidez izapidetutako hornidurako 2 espedientetan eta 616.935 euroan esleitutakoak, SPKLren 150.1 eta 2 artikulua urratu da, hautatutako enpresei luzatutako gonbidapenetan pleguetako baldintzak aldatzean (15 eta 23 espedienteak).

AICk lizitatzailerik klausula administratibo partikularren orria bidali zien aipatutako bi lehiaketetan parte hartzea eskatzeko gonbitekin batera. Bertan, hain zuzen ere, egokitzapen tekniko txikia egin zen (hornitu beharreko ekipoetako bat kendu zenez, lizitazioaren gehieneko prezioa murriztu egin zen), lizitazioaren helburua AICren benetako premietara egokitzeko asmoz. Izan ere, fase horretan zentroaren irekiera prestatzen ari ginenez, etengabe berrikusi eta eguneratzen ari ginen, baina hori ulergarria bezain berezkoa da horrelako ezaugarriak eta garrantzia dituen proiektu batean.

Gonbita jaso ondoren bi lehiaketetan parte hartzeko hautatuak izan ziren enpresei unean-unean jakinarazi zitzaizkien orriaren aldaketa txiki hori egin zela, euren eskaintza aurkezteko bidali zitzaizkien komunikazioaren bidez (B eta C gutun-azalak). Hau da, AICk lizitatzailerik esku jarri zuen behin betiko orria, hautatutako lizitatzailerik euren eskaintzak aurkeztu zitzaizkien jakinarazi zitzaizkien unean bertan.

16. agiri moduan erantsi dira hautatutako lizitatzailerik euren eskaintza aurkezteko bidali zitzaizkien gutunak.

Jardunbide hori ezin hobeto egokitzen da SPKLn araututako prozedura mugatura, berdintasunaren eta gardentasunaren printzipioetara eta, batez ere, txostenean aipatzen den 150. artikulura. Honako hauxe adierazten da bertan:

*“150. artikulua. Gonbiten edukia eta gonbidatuentzako informazioa*

*1. Gonbitetan, argitaratutako iragarkia aipatuko da, eta, horrez gain, honako hauxe ere adierazi beharko da bertan: eskaintzak jasotzeko azken eguna zein izango den; zer helbidetara bidali beharko diren; zer hizkuntzatan idatzi beharko diren, betiere, gaztelaniaz gain beste hizkuntza bat onartzen bada; kontratua esleitzeko orduan zer irizpide hartuko diren kontuan eta euren haztapen erlatiboa zein izango den edo, hala badagokio, beheranzko garrantzi-hurrenkera zein izango den, betiere, lizitazioari buruzko iragarkian agertu ez bada; eta zer lekutan, egunetan eta ordutan irekiko diren proposamenak.*

*2. Izangaienezako gonbitean, orrien ale bat eta agiri osagarrien kopia erantsiko dira. Bestela, agiri horiek eskuratzeko behar besteko azalpenak emango dira, agiriok sistema elektroniko, informatiko eta telematikoen bidez zuzenean bidali direnean, hurrengo artikuluko 1. paragrafoan xedatutakoa kontuan hartuta.*

*3. Orriak edo agiri osagarriak prozedura bideratzen duena ez beste erakunde edo organo baten esku daudenean, gonbitean bertan azalduko da nola eskatu ahal izango diren agiri horiek. Hala badagokio, gainera, honako hauxe ere adierazi beharko da bertan: horretarako azken eguna zein den, zenbatekoa zein den eta kasuan-kasuan ordaindu beharreko zenbatekoa nola ordaindu behar den. Zerbitzu eskudunek interesdunei inolako atzerapenik gabe bidaliko dizkiete agiri horiek, haien eskabidea jaso ondoren.*



Herri-Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

4. *Eskaintzak jasotzeko zehaztutako azken eguna baino sei egun lehenago, kontratazio-organoek edo zerbitzu eskudunek izangaiek orriei edo agiri osagarriari buruz garaiak eskatzen dieten informazio osagarria bidali beharko diete (...).”*

Beraz, AICk zehatz-mehatz bete zuen SPKLko 150. artikuluan zehaztutako izapidea, lizitatuzaileei orrien azken bertsioa bidali zielako euren eskaintza aurkezteko gonbitarekin batera eta, bertan, proposamenak nola eta noiz aurkeztu behar zituzten azaldu zielako.

Txostenean egindako kritikak ez dauka inolako oinarririk.<sup>19</sup>

4. Hornidura espediente batean (17. espedientea), 675.000 euroan esleitu, lehiatzaileetako bat kanporatu da, batere arrazoitu gabe.

HKEEK aipatzen duen lizitatuzailearen bazterketa behar bezala arrazoituta dago 2008ko abenduaren 22an proposamenak irekitzeko antolatutako ekitaldiaren ostean egindako aktan, besteak beste (17. agiri moduan erantsi da gutun-azal itxien irekierako aktaren kopia).

Aktan bertan adierazten den bezala, baztertutako lizitatuzaileak ez zituen “B” gutun-azalean (proposamen tekniko) erantsi karatulako 19. puntuan eskatzen ziren agiriak:

- I. Entregatzeko epea.
- II. Bermearen epea eta saldu osteko zerbitzuak.
- III. Prestakuntza-zerbitzua.

Akats horien ondorioz lizitatuzailearen asmoa zein izango zen jakiterik ez zegoenez, zuzendu ezin zirela adierazi zen, eta lizitatuzailearen eskaintza gaitzetsi zen.

Kritikak, beraz, ez dauka inolako oinarririk, lizitatuzailearen bazterketa behar den moduan arrazoituta dagoelako eta Zuzenbidearen arabera delako.<sup>20</sup>

5. Obra nagusi eta zerbitzu baten aldaketa modura izapidetu dira espediente horiekin zerikusirik ez duten obra, zerbitzu eta hornidurei dagozkien lanak. Kontratu hauek ATKLTBren XG seigarrenean ezarritako publikotasun eta lehia printzipioen arabera lehiatu behar ziratekeen. Aldaketa hauen zenbatekoa 1,7 milioi eurorena izan zen (1 eta 6. espedienteak).

Txostenean, berriro erratu dira egitateen balioespen juridikoa egitean.

Bi espedienteetan (1. eta 6. espedienteak), kontratu-aldaketaren bidez kontratista berari esleitutako prestazioek lotura estua zeukaten jatorrizko kontratuekin, baina, horrez gain,

<sup>19</sup> Xede eta prezio aldaketa gonbidatu eta hautatutako enpresaburuei soilik jakinarazi zitzaizen eta ez lehiakide guztiei.

<sup>20</sup> Aurkeztu gabeko dokumentazioa ez da sartzeko baldintza bat, baizik eta dagozkion esleipen irizpideen arabera balioztatu beharreko ezaugarria.



ezinbestekoak ziren gauzapenari eta lorpenari begira. Beraz, ez zegoen aparte esleitzerik, interes orokorretarako kalte larririk sortu gabe.

Hain zuzen ere, horren erakusgarri dira aldaketa bat eta bestea egin zireneko inguruabarrak, ondoren adierazten den bezala:

- I. Lehenengo eta behin, 1. espedienteari dagokionez, aldaketa horren bitartez prestazioak gehitu ziren, laborategi bateratuan zein bere funtzionamendurako beharrezkoak ziren instalazioetan gutxieneko egokitzapenak egiteko eta gune bateratuetan ekipamendu zehatza jarri eta obra zibila egiteko.

Jatorrizko kontratua lizitatu eta esleitu zenean, AICk ez zekien nortzuk izango ziren zentroko eremuen okupatzaileak. Gainera, euren edukiak eta jarduerak ez zeuden behar besteko xehetasunaz zehaztuta, laborategi bateraturako eta gune bateratuetarako erabilera zehatza zein izango zen jakiteko. Hori dela eta, eremu horietan, oinarrizko proiektua egin zen, ondoren enpresak hartzeko orduan nahitaez aldatu beharko ziren lanak eta inbertsioak ez betearazteko.

Zentroko okupatzaileak, edukiak eta jarduerak zein izango ziren zehaztu ondoren, jatorrizko kontratua betearazten ari zenean, laborategia zein gune bateratuak egokitzeko premiak zehaztu ahal izan ziren, eta hori guztiori kontratatzekeo premia sortu zen.

Aldaketaren helburu zen laborategi bateratuaren egokitzapena beharrezko gutxienekoa izan zen, instalazioak erabiltzeko prest egon zitezen; esate baterako, linea elektrikoa edo gasaren aurreinstalazioa. Ondoren, AICk lehiaketa publikoa deitu eta bideratu zuen, laborategi bateratuaren egokitzapen osorako kontratua esleitzeko asmoz.

Gutxieneko ekipamenduari eta altzariari dagokienez, aldaketa horren ondorioz "giltza eskuan" sistemaren bidez entregatu ziren zentroko gune bateratuetako zenbait instalazio, hau da, jatorrizko kontratuko esleipenduna eraikitzen ari zen instalazioetan txertatu beharreko ekipamendua eta altzariak.

Gainera, azpimarratu behar da kontratistari ez zitzaioela eskatu ekipamendu hori erosteko, AICk berak erosi zuelako altzarien, ekipamendu informatikoen eta multimediaren arloan homologatuta zituen hornitzaileen bitartez. Jatorrizko kontratua aldatzean, honako hauxe egiteko baino ez zitzaion eskatu kontratistari: entregak koordinatzea, salgaiak jasotzea (artean, AIC eta bertako langileak ez zeuden zentroan instalatuta) eta eraikinean muntatzea eta txertatzea.

Horrez gain, ekipamendua instalatzean obran bertan lan egin beharra zegoenez, hobe zen obra betearazten ari zen erakundeari lan hori egiteko eskatzea. Hartara, ekipamenduak ondo jartzen zirela bermatu eta prozesua arindu zitekeen, eta ekipo horien muntaketagatiko bermea luzatu zitekeen. Hori guztiori ezin izango zen egin, jatorrizko kontratista ez beste batek muntatu izan balu.<sup>21</sup>

<sup>21</sup> Alegaziotik ondorioztatu da proiektua osagabea zela obrak esleitzeko eta ez zirela egokitzeko obra osagarriak eta ekipamenduaren hornidura aurreikusten.



- II. espedienteari dagokionez, aldaketaren bidez eraikin nagusia handiagotzeko proiektua eta obra-zuzendaritza egin ziren, eta lan hori jatorrizko kontratistak egitea zen egokiena, zenbait arrazoiengatik:
- a) Eraikin nagusia unitate arkitektonikoa denez, ez dago bertako antolamendua banatzerik. Hori dela eta, koherentzia, segurtasun eta kostu-aurrezkiarengatik, abian zegoen obrako egitura, material-tipologia... berari eutsi behar zion eraikina handiagotzeko obrak.
  - b) Kontratu nagusiko obra amaitu gabe zegoenez, jatorrizko proiektua eta obra-zuzendaritza egin zituen enpresak AICk instalazioetan lan egiten jarraitzen zuen.
  - c) Obra-zuzendaritzako erantzukizuna jatorrizko kontratistarena baino ez zenez, beste erakunde bati esleitu izan balitzaio, obrako arriskuak nabarmen areagotuko ziren (obrarekin lotuta ez zeuden langileak egongo ziren leku arriskutsuetan, neurriak hartzeko, planoak egiteko...).
  - d) Era berean, eraikina handiagotzeko obrako proiektua eta zuzendaritza jatorrizko kontratistari egiteko eskatu ez balitzaio eta lehiaketa zehatza bideratu ostean esleitu behar izan balitz, eraikina handiagotzeko proiektua bukatu baino lehen amaituko zen obra nagusia.

Horren guztiorren ondorioz, larregizko lana sortuko zen (amaitutako elementuak kendu eta egokitu egin beharko zirenez, prezioak gora egingo zuen), konpondu ezinezko inkoherenzietarako arriskua egon zitekeen eta zabalkuntza abian jartzeko prozesua atzeratuko zen. Beraz, AICk ahal zuen guztia egin behar izan zuen hori saihesteko.

Aurreko inguruabar objektiboen arabera, hobe zen zentroa handiagotzeko obrako proiektua eta zuzendaritza egiteko prestazioak kontratista berari esleitzea.

Beraz, ez dago inolako arau-hausterik, eta egiaztatu egiten da AICk bideratutako kontratu-aldaketek jatorrizko kontratuekin lotura estua zeukaten prestazioak egitea zutela helburu, eta lorpenari zein gauzaperari begira behar-beharrezkoak zirela.

Txostenean aurpegiatutakoak ezin du aurrera egin.<sup>22</sup>

6. Guztira 11,9 milioi euroan esleitu ziren 15 espedientetan ez da agiri bidez erasota utzi balio judizioen bidez neurgarriak ziren irizpideen balorazioa formula bidez kuantifikagarriak ziren haiek baino lehenago egin zenik eta horrek SPKLren 134.2 artikulua urratzen du (4, 8, 11, 12, 13, 14, 15, 16, 17, 18, 19, 20, 21, 22 eta 23 espedienteak).

<sup>22</sup> Xedea obra aske bati dagokio eta obra nagusiaren harrera ez da horren mendekoa eta ez da aldaketa bat.



Idazki honetako 2.1. puntuko 5. paragrafoan azaldutako arrazoibideak bete-betean ezarri daitezke txosteneko puntu honetan, eta egiaztatu egiten dute aipatutako espediente horietan SPKLko 134.2. artikuluan eskaintzak formulen bidez ebaluatzeko ezarritako betebeharra bete zuela AICk, balio-judiziopeko beste irizpide batzuen arabera alde aurretik balioetsi ondoren.

Behin eta berriro esango dugu denborazko arrazoientatik SPKL eta bere araudia direla 4., 8., 11., 12., 13., 14., 15., 16., 17., 18., 19., 20., 21. eta 23. espedienteetan ezarri beharreko legeria, lizitazioari buruzko iragarkiak argitaratzean indarrean zeuden bertsioak kontuan hartuta. Horren arabera, formularen bidez kuantifikatu ezin ziren elementuak balioetsi behar ziren lehendabizi; eta formula matematikoen ezarpenarekin lotutakoak, ondoren. Horixe bera egin zen, hain zuzen ere.

Lehiaketa horietan, ordea, ez zen puntuazioa jakitera eman behar, formularen bidez kuantifikatu beharreko faktoreei buruzko proposamenak jendaurrean ireki baino lehen. Izan ere, betekizun hori geroago ezarri zen SPKLren zati bat garatzen zuen maiatzaren 8ko 817/2009 Errege Dekretuaren bidez (30.3. artikulua).

Hala ere, ikusi ahal izan dugunez, aurreikuspen hori ez dago 4., 8., 11., 12., 13., 14., 15., 16., 17., 18., 19., 20., 21. eta 23. espedienteetan ezartzerik, deialdiak argitaratu zirenean ez zegoelako indarrean, besterik ez.

Hori dela eta, ez da inolako arau-hausterik antzematen. AICk eskaintzak formulen bidezko irizpideen arabera ebaluatzeko ezarritako betebeharra bete zuen, aipatutako espediente guztiak balio-judiziopeko beste irizpide batzuen arabera alde aurretik balioetsi ondoren.<sup>23</sup>

7. Epaitegi honen iritzira, Automotive Intelligence Center Fundazioak, aurreko 1etik 6ra bitarteko paragrafoetan aipatutako ez-betetzeak alde batera, zuzentasunez bete du 2006tik 2010era bitarteko ekitaldietan eraikuntza eta ekipamendu prozesua arautzen duen lege arautegia.

Gai honi dagokionez, inolako beharrik gabe gauza bera behin eta berriro ez azaltzeko, bete-betean joko dugu 2.1. puntuko 8. paragrafoan emandako azalpenetara.<sup>24</sup>

<sup>23</sup> Agiri hau ez dago espedienteetan jasoa eta ez da alegazioetan aurkeztu.

<sup>24</sup> HKEEk adierazitako iritzia arrazoitua eta koherentea da Osokoak onartutako fiskalizazioaren esparru eta zabalari dagokionez, fiskalizazio txostenaren I. atalean zehazten dena, eta sektore publikoaren auditoriako arau teknikoetan ezarritakoa betetzen du, HKEEk txosten guztietan baliatzen duena.





## 4.2 BESTE GABEZIA ETA GOMENDIO BATZUEN INGURUKO ALEGAZIOAK

Aztertu diren kontratuetatik 23ren esleipen irizpideak, 36,4 milioi euroan esleitutakoak, enpresen kaudimenarekin loturiko alderdiak balioztatzen dituzte (giza eta gauzazko baliabideak, kalitatea ziurtatzeko plana eta prestakuntzaren antolamendua eta plana), APKLTBren 17, 18, 19 eta 86 artikuluetan eta SPKLren 53.2, 131.2 eta 134 artikuluetan ezarritakoaren aurka. Gainera, prezio eta epe irizpideak ez dira proportzionalak (1, 2, 3, 4, 6, 7, 8, 11, 12, 13, 14, 15, 16, 17, 18, 19, 20, 21, 22, 23, 24, 25 eta 26 espedienteak).

Txostenean aipatzen diren espedienteak esleitzeko irizpideak (baliabide materialak, giza baliabideak, kalitatea ziurtatzeko plana, antolaera eta prestakuntza-plana) orrietan azaltzen ziren, lizitzaileak kontratua betearazteko egin behar zuen proposamen zehatza aipatzeko asmoz eta, inolaz ere ez, enpresaren baldintza abstraktu moduan (horixe bera kaudimenarekin lotutako irizpidetzat hartu liteke).

Honako hauxe zen orrietan azaldutakoa eta, ondoren, AICk berak balioetsitakoa: lizitzaileak kontratuaren betearazpenerako konprometitu beharreko baliabide zehatzak (materialak eta pertsonalak), kalitatea ziurtatzeko plana eta kontratua betearazteko zehatz-mehatz proposatutako antolaera eta prestakuntza-plana. Elementu horiek, ordea, ez ziren enpresaren baldintzat hartu edo gaitasuntzat jotzen.

SPKLko 134. artikuluan, esleipenerako irizpideak arautzen dira, eta bete beharreko betekizunak zein diren zehazten da. Agindu hori, hain zuzen ere, Europar Batasunak arlo horretan egindako arautegiaren ondorioz sortu da. Izan ere, Europako Parlamentuak eta Kontseiluak 2004ko martxoaren 31n obren, hornikuntzen eta zerbitzuen kontratu publikoak esleitzeko prozeduren koordinazioari buruz emandako 2004/18/EE Zuzentarauan dago adierazita. Honako hauxe xedatzen da Zuzentarauko 46. kontuan hartuzkoan:

*“[...] esleipen-botereek kontratua eskaintza ekonomiko abantailatsuenaren arabera esleitzea erabakitzen dutenean, kalitate/prezio erlazio onena eurretako zeinek eskaintzen duen zehazteko asmoz ebaluatu beharko dituzte eskaintzak. Horretarako, behar besteko irizpide ekonomikoak eta kualitatiboak zehaztu beharko dituzte, esleipen-boterearentzat eskaintza ekonomiko abantailatsuena zein den erabaki ahal izateko. Irizpide horiek kontratuaren helburuaren arabera zehaztuko direnez, eskaintza bakoitzak kontratuaren helburuari begira nolako errendimendua duen ebaluatu ahal izango da, zehaztaperen teknikoetan azaltzen den bezala. Era berean, eskaintza bakoitzaren kalitate/prezio erlazioa nolakoa den ere ebaluatu ahal izango da.”*

Bestetik, honako hauxe zehazten da 53. artikuluan:

*“[...] zenbait zerbitzurenkatiko ordainsariari buruzko legezko, arauzko edo administrazioko xedapen nazionaleri inolako kalterik egin gabe, esleipen-botereek honako irizpide hauek hartuko dituzte kontuan kontratu publikoak esleitzeko orduan:*

- a) *Esleipen-boterearen ikuspegitik, kontratua eskaintza ekonomiko abantailatsuenari esleitzen zaionean, kasuan kasuko kontratu publikoaren helburuarekin lotutako zenbait irizpide; esate baterako, kalitatea, prezioa, balio teknikoa, ezaugarri estetiko eta funtzionalak, ingurumen-ezaugarriak,*



Herri-Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

*funtzionamenduaren kostua, errentagarritasuna, saldu osteko zerbitzua, laguntza teknikoa, amaiera-data eta entregatzeko edo betearazteko epea.*

b) *Bestela, prezio merkeena besterik ez.*”

Zuzentarauan, ez dira erabili beharreko esleipen-irizpideak zehatz-mehatz zerrendatzen, zenbait baino ez baitira adibide moduan aipatzen. Beraz, beste batzuk daudela onartzen da. Hala ere, ezinbestekoa da irizpideek kontratuaren helburuarekin zerikusia edukitzea.

Modu koherentean, SPKLko 134. artikuluan (eta HAKLTBko 86. artikuluan) xedatzen da esleipenerako irizpideak zehazten direnean hiru eskakizun baino ez direla kontuan hartu behar:

- I. Objektiboak eta kontratuaren helburuarekin lotutakoak izatea.
- II. Orrietan azaltzea.
- III. Beheranzko garrantzi-hurrenkeraren arabera zerrendatzea.

Gai hau arautzen duen irizpidearen erakusgarri da KAABk urriaren 24an egindako 28/1995 Txostena:

*“Lehiaketan esleipenerako oinarri moduan erabili beharreko irizpideei dagokienez, Herri Administrazioen Kontratuei buruzko Legeko 87. artikuluan bete beharreko hiru eskakizun baino ez dira agertzen: irizpideak objektiboak izatea; klausula administratibo partikularren orrietan azaltzea; eta beheranzko garrantzi-hurrenkeraren zein kasuan kasuko haztapenaren arabera zerrendatzea. 87. artikuluan bertan, zenbait irizpide aipatzen dira, eta, euren artean, prezioa agertzen da. Gainera, irizpide horien aurrean “esate baterako” esamoldea agertzen da, “antzeko beste batzuk” ere badaudela adierazi nahian. Beraz, egiaztatu egiten da ez direla zehatz-mehatz zerrendatzen (beste irizpide objektibo batzuk egon daitezke) eta ez direla aipatutako guztiak lehiaketa jakin batean ezinbestean ezarri behar. Hori dela eta, lehenengo eta behin, argi eta garbi dago kontratazio-organoak ondasun eta zerbitzu informatikoetarako kontratuak lehiaketa bidez esleitzeko klausula administratibo partikularren orrietan prezioa adieraztea ez dela ezinbestekoa erabaki dezakeela.”*

Beraz, erabat legezkoa da kontratistaren elementu ez-subjektiboak esleipenerako irizpide moduan ezartzea, zeharo objektiboak direlako eta kontratuaren helburuarekin lotuta daudelako; esate baterako, lizitatzailak kontratua betearazteko erabiliko dituen baliabideak edo antolamendurako aurreikusiko dituen planak.

Txostenean aipatzen diren irizpide guztiek legearen arabera eskatutako ezaugarri guztiak betetzen dituzte, kontratatu beharreko prestazioen ezaugarrietara egokitzen dira-eta. Hain zuzen ere, horixe bera da balioespenaren helburua.<sup>25</sup>

<sup>25</sup> Aztertutako pleguek ez zuten aurreikusten kontratua egikaritzeko pertsona eta/edo gauzako elementu kopuru handiagoa eskura jarriko zenik, kaudimenaren baldintza modura finkatu zirenekiko.



